

ULERTZEA, BIZITZAREN BILA

EMAKUME GAZTEEN BAHIKETA
ETA BORTXAKETA, 1979-1980



Izenburua: Ulertzea, bizitzaren bila. Emakume gazteen bahiketa eta bortxaketa, 1979-1980.

Lehen edizioa: Errenteria, 2024ko azaroa

Liburu honek Creative Commons lizentzia du

Creative Commons BY-NC-SA lizentziapean: Aitortza – Ez-komertziala -Partekatu berdin 3.0 (CC BY-NC-SA 3.0 es) <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

Ikerketa- taldea: Sabino Ormazabal Elola eta Bertha Gaztelumendi Caballero

Egilea: Argituz

Lankidetzak: Berdintasunerako Kontseilua

Hitzaurrea: Nerea Barjola Ramos

Itzulpenak: Bakun eta Errenteriako Udala

Maketazioa: Harira Komunikazio Grafikoa

Inprenta: Antza

ISBN: 978-84-949792-5-5

ULERTZEA, BIZITZAREN BILA

Emakume gazteen bahiketa
eta bortxaketa, 1979-1980



Errenteriako Udalak 2023ko martxoaren 21ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zuen III. berdintasunerako Plana 2023-2031. Plan horretan, datozen urteetarako emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloko politika publikoak garatzeko esparru estrategikoak ezarri ziren. Hainbat lan ildo zehaztu ziren; besteak beste, *indarkeria matxistarik gabeko udalerrria* lortzea.

Helburu hori lortzeko zehaztu zen ibilbideetako bat udalerriko emakumeen aurkako indarkeriaren memoria historikoa jasotzea izan zen.

Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen Udaleko Berdintasun Kontseiluarekin harremanetan jarri zen, orain arte egin dena baino modu zabalagoan, 1979 eta 1980 urteen artean neska gazteek pairatutako bahiketak eta bortxaketak jasotzen dituen dokumentua aurkezteko. Gertakariok, ez ziren Errenterian bakarrik gertatu, baina gure udalerrian eragin eta erantzun esanguratsua izan zuten.

Berdintasun Kontseiluan baloratzen da, justuki, egiteke zegoen lan ildoetako bat zela, eta gertakari horien sozializazioak udalerriko indarkeria matxisten memoria historikoa berreskuratzeko ariketari erantzuten diola, erreparazioaren ikuspegitik eta Egiaren printzipioari erreparatuta.

Argitalpen honekin, Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluak indarkeria matxisten memoria historikoa jaso eta eraikitzeko ariketa kolektibo baten lehen pausoa eman nahi du. Berdintasunerako III. Planak markatzen duen ibilbide-orri baten lehen urratsa eta Kontseiluan modu kolektiboan eraikitzen jarraituko dena.

Aurkibidea

Errenteriako Berdintasun Kontseilua	11
Ulertzen dut jada egia, Nerea Barjola Ramos	17
Emakume gazteen bahiketa eta bortxaketa, 1979-1980.	25
Sarrera-Oharra	27
Aurrekariak	31
Gertaeren testuingurua	36
Ziurgabetasuna Errenterian	40
Gertaeren denbora lerroa: bahiketak eta bortxaketak	44
Gertaeren ondorengoak	78
Motibazio politikoa	85
Eranskina	89

Inguru berde gehiago, eta berde gutxiago inguruan¹

Oso bestelakoa zen 70eko hamarkadako eta 1980ko hamarkadaren hasierako Orereta-Rente: han ez zen lorez apaindutako biribilgunerik, ezta fatxada margotu berririk ere. Herriaren erdian, nahasian, artean zutik zirauten azken fabrikak eta «Manchester txikiaren» iragan industrialetik zetozenen hezurdurak; herriko haurrentzat, ordea, bazter miresgarriak ziren, misterioz eta abentura ametsez beteak. Aroma paper-fabrikatik zetorren; kea, berriz, Pasaiako termikotik; eta koloreak erriok zekartzan, goiz batean gorri bizi esnatzen baitzen eta biharamunean, urdin-urdin. Auzo berrietan, aldiz, beste era bateko paisaia zuten: dorre tzarrak, baina azpiegiturarik ez, sarritan ezta estolderiarik edo iturriko urik ere; beste etorkizun baten bila iritsitako milaka herritar hartzeko korrika eta presaka pentsatutako eraikinak... Negozioa, kaosa.

Errenteria erreferentziazko herria zen Estatu osoan, onerako eta txarrerako. Atentatuak izaten ziren, atxiloketak, leherketak, polizia behin eta berriro oldartzen zen –oso gogor beti–; pertsonak sufritu egiten zuten, hil egiten ziren, torturatu egiten zituzten, eta abar. Batzuetan itogarria zen, bai horixe!

Elkartasun handiko herria ere bazen. Langileak kaleratzen zituztenetan, han ateratzen zen jendea, estu bat eginda. Herria bere kabuz antolatzen zen, batzarretan; hantxe ernamuindu zen gerora Euskal Herri osoa hamaika kolorez jantziko zuen makina bat gizarte mugimendu. Herri alai eta parrandazalea, giro handikoa, irudimentsua, noiz-eta dena zeharo aldatu behar zuen heroina muturra agertzen hasita zegoen sasoian. Azken batean... zigortu beharreko herri bat.

¹ Garai horretan erabiltzen zen esamoldea.

Beldurra da herritarrak kontrolatzeko gobernuek gogokoen duten tresna: beldurra indarkeriari, torturari, espetxeari, heriotzari... Baina baita bestelako beldurra ere: gugandik desberdin direnen beldurra, norbaitek lapurreta egingo digun beldurra, lana edo estatusa galtzekoa, gizartean baztertuta geratzekoa. Gizartekotzen gaituzten eremuetan mamitzen da beldurra, eskolan, erlijioaren altzoan, lantokietan, eta beste hamaika esparrutan. Ikarak hartuta gabiltza, ez ote gaituzten hartuko putatzat, galtza-jarriotzat, inpotentetzat; ez ote diguten esango ninfomana, marixua, bollera, neskazaharra...

Beldur eta indarkeria kontuetan adituak gara emakumeak, horixe ikasten dugu beste ezer baino lehen: «kontuz ibili», «ez, gero, bakarrik joan», «ez etorri etxera zu bakarrik»...

Indarkeriak eta beldurrak pilatzen doaz urteak joan urteak etorri, bata bestearen gainean. Eta ez da soilik maitasunaren izenean akabatuko zaituen bikotekide hori, nortasuna ezabatuko dizuna, edo geroz eta txikiago eta ezgauzago sentiaraziko zaituena; hor daude gainera sare sozialetan lotsagarri utziko zaituzten beldurra, edertasun ereduak ez betetzearena, gauean etxerako bidean zoazela atzean datozen pausuek, sinetsiko ez dizuten beldurra, kuadrilla edo familia izorratzea leporatuko dizuten beldurra.

Indarkeria matxista eta sexualak bakarrik bihurtzen du biktima susmagarri. Beste ezein indarkeria mota ez bezala, toleratu eta babestu egiten dute epaileek, Estatuak, komunikabideek eta goitik beherako narratiba sozial batek. Biktimak bere burua defendatu behar du, azaldu egin behar du non zegoen eta zergatik, frogatu ez dela baimendutako harremana izan, edo ez dela ari mendekuz, diru bila, edo sistemari probetxu ateratzeko asmoz, batez ere erasotzailea ingurukoa badugu, edo gizon ospetsua bada. Biktima estigmatizatzen duen indarkeria mota bakarra ere badenez, huraxe da salatzen nekezena.

70eko hamarkadaren hondarrean lehen bortxaketen edo bortxaketa ahaleginen berri jakiten hasi ginen. Herri bat baino gehiagotan gertatu ziren. Errenterian beste inon baino gehiago izan ziren, eta kasurik lazgarrienak,

berriz, Mari Jose Bravoren² heriotza, Donostian, eta Ana Tere Barruetarena³, Bilbon. Handik urte gutxira hil zen Javi Rueda, Mari Joseren mutil-laguna, eraso hartan egin zizkioten zaurien ondorioz ziur aski.

Ez dugu sekula jakingo benetan zenbat emakume bortxatu zituzten, estigma horrexegatik, biktima bortxaketa isilean gordetzera daraman lotsa horrengatik.

Izan ere, indarkeria sexualak legitimazio are handiagoa du gatazka garaietan, beti izan baita gerretan soldaduak gizartekotzeko baliatzen diren ekintzetako bat, eta hori, ez bakarrik emakumeei banaka min egiteko botere ariketa gisa, ezen, baita sinbolikoki komunitate osoa umiliatzeko molde gisa ere, emakumeen gorputzetan gordetako ohore kolektiboari laido eginez.

Eskuin muturreko taldeak –talde parapolizial ere esaten zitzaaien– aspalditik zebiltzan Euskal Herria astintzen sigla-festa baten atzean ezkutaturik (Guerrilleros de Cristo Rey, ATE, Triple A, Batallón Vasco Español, eta aurrerago, GAL). Herritarrak hil edo jipoitzen zituzten, gehienetan zergatik-eta parean tokatzeko zori txarra izan zutelako, edo gazteak zirelako, edo euskaldunak zirelako, edo manifestazioetara joaten zirelako, edo emakumeak zirelako. Lasai asko zebiltzan, ondotxo baitzekiten ez zituztela ikertuko edo zigortuko. Garai berean, Lezon, komunikabideek «inkontrolatuak» deitzen zieten haiek Carlos Saldise⁴ ere hil zuten; ziur aski berberak izango ziren.

Bortxaketek beldurra zabaldu zuten, inon ez ginen seguru sentitzen, basakeria agerikoa zen, baita neska koskorren aurka ere. Gizon haiek armak zituzten. Zigorgabetasuna.

² Mari Jose Bravo del Valle 1980ko maiatzaren 28an bortxatu eta hil zuten, Loiolan; Javi Rueda mutil-lagunak zauri larriak izan zituen buruan, eta urte gutxi batzuk geroago hil zen. Haren hilketa Batallón Vasco Españolak aldarrikatu zuen; 16 urte zituen.

³ 1980ko urtarrilaren 9an Loiu bere baserrira doan bidean bortxatu, torturatu eta hil zuten Ana Tere Barruetak 19 urte zituen; GAEkoek aldarrikatu zuten haren hilketa; 19 urte zituen.

⁴ Carlos Saldise 1980ko urtarrilaren 16an hil zuten Lezon. GAEkoek aldarrikatu zuten haren hilketa.

Eta horren kontra, zer egin?

Errebeldiarako garaiak ziren, gizarte eta auzo antolaketan uste osoa izateko garaiak, egitura zaharrak zalantzan jarri eta akabatzeko garaiak, eta dena posible zela sinestekoak.

Gu defendatzera ez ziren kanpotik etorriko, ez gintuen ez Estatuak ez poliziak babestuko, inondik ere, eta herria bera antolatu zen, batzarren bidez. Manifestazio mordoa egin zuten, greba orokor bat ere bai, eta herritarrek zaintze piketeak osatu zituzten. Horren guztiaren buru, mugimendu feminista jaio berri bat, buru-belarri zebilena diktadurak hainbeste goretsi zuen emakumearen rolaren aurka borrokan: emakumeak behar baitzuen ama izan, gorputz eta arima, eta egonarri handiko emazte; are gehiago, adingabetzat gintuzten, baita gure ondasunak administratzeko ere. Mugimendu feminista hura zen gaztea, langilea, antifaxista, kaletarra. Ahalegin betean ziharduen abortatzeko eskubidea legeztatu eta, hartara, ehunka emakume salbatzeko, ez zezaten bizia galdu toki ziztrinetan abortu klandestinoak egin beste erremediorik ez eta. Dibortzio lege baten alde ere borrokatzen ziren emakume haiek, tresna baliagarria izango zelakoan, esate baterako, tratu txar latzetatik aldentzeko. Borrokatzen ziren kalean eta espazio publiko guztietan pertsona beregain gisa agertzeko, nor izateko, eta ez *halakoren emaztea edo bikotekidea*.

Feminista izatea ez zegoen boladan. Emakumeok kide genituen gizon batzuek, antza, beti zekiten geronek baino hobetoxeago zer egin gu babesteko, nola antolatu behar genuen, edo nola sortu estrategia hobeak. Auzoetako piketeetan zebiltzan gizon-emakume ausart haietako zenbaitek ere, ezin eutsi etxera berandutxo itzultzen ziren emakumeen bizitza kontrolatzeko tentazioari.

Asanblada feministek giharra erakutsi zuten: herriko kaleak jendez bete zituzten gauzez egindako manifestazio batean, greba orokorrera deitu zuten, bi egunkari argitaratu, eta, batez ere, emakumeok jasaten dugun indarkeriari buruzko eztabaida piztu zuten.

Eta, hara non, eztabaidak hortxe jarraitzen du oraindik ere. Harrezkero, ikasi dugu gertatzen zaizkigunei izena jartzen, sortu ditugu autodefentsarako tresnak, aurrera egin dugu ahizpatasunean eta erantzuteko gaitasunean, eta, batez, ere, oso-oso argi dugu: GUTAKO BAT UKITZEN DUTENERO, EMAKUME GUZTIOK UKITZEN GAITUZTE

Berrogeitaka urte geroago, Berdintasunerako Kontseilutik gogora ekarri ditugu gertakari haiek, denboran barrena gal ez daitezten, geure historiaren parte direlako, Errenteriako emakumeon historiaren parte, eta, horrenbestez, herri honen memoriaren parte. Ezin dugu-eta inola ere onartu denboraren joanean gu beti ikusezin izatea eta oroimenean boterea dutenen kontakizuna baino ez geratzea.

Berdintasunerako Kontseiluaren eskuak luzatu nahi dizkiegu sinbolikoki, eta besarkada estua eman, halako sufrikarioa bizi izan zuten neskato haiei. Besarkatu nahi ditugu, halaber, asanblada feministetan antolatu ziren emakume haiek, pixkanaka, urratsez urrats, gure bizitzak aldatzea lortu dutelako. Eta, herria bera ere besarkatu nahi dugu, garai hartan besterik gabe Rente esaten genion herriari, gaurko Orereta edo Errenteriari, pertsonen eskubideen aldeko borroka gogoangarri horregatik.

Eta gazteenei, erne ibili beharraz ohartarazi nahi diegu: eskubideak, defendatzen ez badira, galdu egiten dira, eta elkartasuna da beti defentsarik onena.

ULERTZEA, BIZITZAREN BILA

Ulertzen dut jada egia

*Ulertzen dut jada egia
nire desiretan
eta nire zorigaitzetan
nire konponezinetan
nire oreka ezetan
nire eldarnioetan
lehertzen da
ulertzen dut jada egia
orain
xerka dezadan bizitza*

Alejandra Pizarnik.

[Euskaratzailea: Xabier Boveda]

Iraganari adiera (berria) ematea, ez dezagun ahaztu; mamiz bete dezagun, eta memoria eraiki. Gure gorputzek oroimena dute, mintzatzen dira, adierazkorrak dira, eta hegemonia *patriarkala* desegiten dute, erreparazio kolektiborako bideak irekiz.

Ulertzea, xerka dezagun bizitza, edo egia, justizia eta erreparazioa.

Egia ulertzea ekintza politikoa da.

Baina *ulertzea* ez da iritzia ematea. *Doxa* grezierazko hitza da, eta «iritzia» esan nahi du: «*egiaren* bidea» eta «iritziaren bidea» bereizteko balio zuen kontzeptu horrek. Eta *egia* horixe azaleratu behar da *doxa* guztien gainetik; izan ere, iritzia ematea ahanztea da. Guk, ordea, ahantzi ez, gogoratu egin nahi dugu, eta horretarako, izena jarri beharra dago. Horrexegatik, *ulertzea* nozio politiko bat da, eta berekin dakar ezagutza feminista eskuratzea, eta testuinguru batean kokatzea emakumeon bahiketa, bortxaketa eta erailketak, erregimen politiko sexista egituratu baten barruan.

Argitalpen hau memoria historikoaren lekukotasun bat da, bidea ematen duena 1979 eta 1980 bitartean gertatu ziren bortxaketak eta bahiketak feminismitik berrizendatu eta birkokatzeko prozesu kolektibo bat abiarazteko. Eraso horien inguruko ahanztura eta zigorgabetasuna direla eta, biktimei ebatsi egin zaie bai *egia*, bai erreparaziorako eskubidea. Horregatik, justizia feministazko ekintza bat da zer gertatu zen enuntziatzea, politikoki enuntziatzea, eta luzeegi jo duen isiltasun hori apurtzea. Gizarte gisa, parte dugu ahanztura horretan, eta hori ez baimentzeko, partedun ez izateko, memoria feminista bat eraiki behar dugu, komunitatea aldaketarako eta eraldaketarako agentetzat hartuz. Eta isiltasuna apurtu behar dugu.

Memoria partekatu bat ontzeak esan nahi du *egia* eraikitzea ahalbidetuko duten mekanismoak sortu behar direla, eta errelatoa eraikitzeke erabili diren terminoak (bir)definitu. Hori dela eta, ondoko paragrafoetan garrantzitsuak iruditzen zaizkidan ideia batzuk aipatu nahi nituzke: alde batetik, zein garrantzitsua den *egia* epistemologia feminista batetik produzitzea, eta nolako ahalmena duen epistemologia horrek sexu-indarkeriak izendatzeko darabiltzagun kontzeptuak birdefinitzeko; eta, bestetik, nola bahiketen eta bortxaketen aurreko urteetan mugimendu feministak egindako lanak aldaketa testuinguru politiko bat ekarri zuen, non emakumeek agentziarako gaitasun soziala, kulturala eta politikoa zuten.

Lehenik eta behin, memoria eraikitzeak esan nahi du *egia* ezagutu eta aitortzea, lekua egitea, zigorgabetasunari aurrez aurre begiratzea, zeren «*esperientzia hain ankerrak pairatu ondoren bizi ahal izateko, berpiztu ahal iza-*

teko eta ez erotzeko, ezinbestekoa da gizarteak zer gertatu zen onartzea eta emakumeei zenbateko kaltea eragin zitzaaien aitortzea. Horretarako, bizi izandako basakeriei buruz hitz egin behar da¹». Egiak galderak erantzuten ditu, testuingurua ematen du, eta kokatu egiten ditu bortxaketak, hilketak, mehatxuak eta galdeketak: sistema baten egiturazko zati bat dira, zeinak emakumeen gorputzak baliatzen dituen mugak, eskubideak eta lurraldea zedarritzeko. Egintza politikoak dira, eta ez gertaera bakanak edo salbuespenezkoak.

Alde horretatik, interesgarria da *desagertze behartua*² terminoa erabiltzea Erretereriako emakumeek 1979-1980 bitartean jasan behar izan zituzten bahiketa, bortxaketa eta intimidazioei buruz aritzeko. Termino horrek aukera ematen du erasoak politizatzeke, eta kokatu egiten ditu, testuinguru politiko batean emandako indarkeriazko erantzun misogino gisa, «ez da neutrala, eta sexu-krimena eta -tortura parametro zuzenagoen barruan kokatzeko modua ematen du: desagertzearen espazioa birdefinitzen du, leku eta sistema politiko gisa»³.

Hutsune bat betetzeko beharretik sortu zen pertsonen nahi gabeko desagertzearen definizioa, modua egon zedin pertsonen desagertze behartuak halakotzat identifikatu edo aitortzeko. NBEren Batzar Nagusiak 1993ko otsailean idatzi zuen *Desagertze behartuen aurka pertsona guztiak babesteari buruzko adierazpena*. Hara zer hartzen duen desagertze behartutzat: *edozein sektore edo mailatako gobernu-agenteeek, talde antolatuek edo partikularrek, gobernuaren izenean edo haren zuzeneko edo zeharkako laguntzarekin jarduten dutenek, pertsonak beren borondatearen aurka atxilotzea, atxikitzea edo lekualdatzea, edo pertsona horiei askatasuna beste nolobait kentzea (...)*⁴.

¹ Fulchiron, Amandine, «Generoa eta trantsiziozko justizia. Emakumeen mugimenduak zigorgabetasunaren aurka», Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana, Iker Zirion Landaluze, (ed.) UPV-EHU-HEGOA, 82-83. or.

² Kontzeptu hori hemen dator garatuta: Barjola, Nerea "Microfísica sexista del poder. El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual", Barcelona, Virus editorial (2018).

³ Microfísica sexista del poder..., 5. or.

⁴ NBEren Batzar Nagusia: Desagertze behartuen aurka pertsona guztiak babesteari buruzko adierazpena. (A/RES/47/1993).

Definizio horretatik abiatuta, sexu-krimenak koka ditzakegu «erregimen baten esparruan eta haren abaroan. Erregimen horretan, zuzenean edo zeharka erregimen politiko sexista baten izenean jarduten duten talde antolatuek edo partikularrek desagertzera behartzen dituzte emakumeak. Erregimen bat sistema bat da, hau da, jarraibideak ezartzea eta funtzionamenduak arautzea ahalbidetzen duen eskema bat; erregimen horren alde politikoa lotuta legoke hura kokatuta dagoen kudeaketa ideologikoarekin. Emakumeen desagertze behartua eta tortura sexuala ahalbidetzen dituen sistema bat hauxe da: ondo definitutako erregimen politiko-sexista bat. Bestela esanda, emakumeen aurkako sexu-tortura, hilketak eta desagertzeak ez dira zorte txar kontua, ez dira “batzuetan gertatzen diren” gauzak. Ez, nozio politiko bat dira; sistema soziala egituratu eta eratzen duen nozio politiko bat»⁵.

Lan honen esparruan, garrantzi handia du termino horrek, aukera ematen digulako sexu-indarkeriaz hitz egiteko paradigma politiko, sozial eta kultural batean kokatzen den indarkeria gisa, zeina estatuaren baliabideek erabil dezaket, zigorrik gabe. Argitalpen honetan deskribatzen diren *desagertze behartuak* eta bortxaketak erregimen politiko aldatzeko bidean zegoen testuinguru batean gertatu ziren. Prozesu horretan zehar –eta baita aurretik ere–, mugimendu feministaren borroka izena jarri zion sexu-indarkeriari, eta emakumeak menderatzeko eta otzantzeko esparru batean kokatu zuen, gizonen autoritate eztabaidaezinenaren pean. Hala, aurre egin zion ezarritako ordena sexualari. Sexualitateari buruzko gogoetak kontzientzia hartze bat eragin zuen emakumeek jasaten zituzten mehatxu eta eraso sexualen inguruan. Mittoak kolokan jartzeko eta estereotipoak hausteko borroka horretan, sexu-erasoen aurkako aldarrikapenak oihartzun handia izan zuen lurralde osoan. Ondorioz, emakumeen sexualitateari buruz gogoeta egiteak aukera eman zuen definitzeko zein estuki lotuta zeuden emakumeen autonomia sexuala, plazererako eskubidea, eta askatasun horrek haien osotasun fisiko eta sexualari zekarkion arriskua.

⁵ Microfísica sexista del poder..., 6. or.

Garai hartako feminismoak mehatxu hori problematizatu, eta testuinguru patriarkal batean kokatu zuen, zeinean sexu-indarkeria baliabide bat zen, emakumeen oinarrizko eskubideak mugatu eta murrizteko. Honela azaldu zuen Carole Vancek: «*Sexu-indarkeriaren biktimei egindako kalte fisiko edo psikologiko errealetik haratago, sexu-erasoa gertatzeko arriskua bera abisu bortitza zen gizonezkoek dakarten arriskuaz ohartarazteko, eta mugatu egiten zituen emakumeen mugimenduak eta portaera*»⁶. Batzuen eta besteen esperientziak batera jartzeak erasoak politizatzea ahalbidetu zuen: eguneroko bizimoduko parte direla erakusteaz gain, agerian jarri zuten sexu-eraso bat jasateko beldurrak nolako ondorioak zituen emakumeen bizitzan; izan ere, «*bortxaketak intimidazio-funtzio kontzientea bete du, eta, horren bidez, gizon guztiek beldurtuta dituzte emakume guztiak*»⁷.

Sexu-indarkeria nagusikeria matxistazko ekintza gisa definitzen hasi ziren, «*hortaz, begi-bistan geratu zen bortxaketa, bere muinean, zer zen. Ez zen gizonezkoaren sexurako grina handiaren ondorio saihestezina, ezta buru-nahasteren baten ondorio ere. Gehiago zen gizartean onartutako jokabide-eredu baten muturreko moldea, zeinaren arabera, gizonak emakumeak menderatu behar dituzten, argi eta garbi utzi nork agintzen duen*»⁸.

1979 eta 1980 artean gertatu ziren bortxaketek badute berezitasunik, haietako batzuk eskuin muturreko talde terroristek hartu baitzituzten beren gain. Horrek bi kontu garrantzitsu mahaigaineratzen ditu: alde batetik, bortxaketak egiteko ez dira ezkututzen, hau da, hautsi egiten dute ikusezintasunaren ituna, ez dute sexu-indarkeria ukatzen, eta ez dute kokatzen ezusteko gertakizunen eremuan. Aitzitik, izana ematen diote, inpunitate osoz gauzatzen dute, ezkutatu beharrik gabe. Alegia, agerian uzten dute lehendik zegoen menderatze-egitura guztia. Eta, bestalde, arma politiko instituzionalizatu gisa

⁶ Vance, Carol, «El placer y el peligro: hacia una política de la sexualidad», Vance, Carole (comp.), Placer y peligro, explorando la sexualidad femenina, Madrid, Editorial hablan las mujeres, 1989, 13. or.

⁷ Browmiller, Susan, Contra nuestra voluntad, Barcelona, Editorial Planeta, 1975, 14. or.

⁸ Osborne, Raquel, La violencia contra las mujeres. Realidad social y políticas públicas, Madrid, UNED, 2001, 19. or.

erabiltzen dute sexu-indarkeria, estatuak parte duela, eta, ondorioz, horrek dakar estatua erregimen politiko sexistatzat ezagutzea.

Ildo horretan, garrantzitsua da ulertzea garai hartako aldarrikapen feministek lortu zutela sexu-erasoak definitzeko era aldatzea. Harrezkero definituko ziren «ez emakumeen ohore galtze gisa, zeinak gizonen arteko ituna hausten baitzuen, familiaren ohorea zikintzen zuelako –eta, beraz, sortutako gatazka garbitzeko ardura zekarkien gizonen–, baizik eta gizon batek edo gehiagok emakume bati edo gehiagori egindako indarkeria-ekintza gisa. Are gehiago, era horretako indarkeria emakume ororen aurkako hertsapentzat hartu zen, denak izan zitezkeen–eta sexu-erasoen edo sexu-erasoen mehatxuaren jomuga»⁹. Eta, horregatik, antolatu zen erantzun misogino bortitzak helburu argia zuen: garai hartako disidentzia eta borroka politiko sozial eta feminista ezartzen ari ziren aldaketa guztiak desegitea. Beldurra eta izu sexuala horretarako tresna ziren.

Feminismoak sexu-indarkeriaren oinarriak identifikatu zituen, eta antolamendu patriarkalaren barruan kokatu zuen, gizartean nagusi zen printzipio fundazional baten adierazpide gisa: «gizonak emakumeen gainetik daudela, emakumeek ez dutela beren gorputzaren gaineko eskubiderik, emakumeen gorputza gizonen ondare dela, eta, beraz, edonon, edonork eraso diezaiokeela. Bortxaketa emakumeen askatasun indibidual eta kolektiboaren aurkako ekintza da. Tortura da, fisikoa, morala, psikologikoa; hilketa ere bada batzuetan, eta gu emakumeon aurka erabiltzen dute kalean, etxean, komisarian edo gerran»¹⁰. Testuinguru politiko-feministak egunero-egunero bizi zutena dokumentatu zuen: sexu-indarkeria, intimidazioa eta arriskua errepresio-mekanismoak ziren, eta haien helburua zen –orain ere bada– rola inondik ere ez aldatzea, eta *statu quo* sexualari eustea.

⁹ Osborne, Raquel, La violencia contra las mujeres. Realidad social y políticas públicas, Madrid, UNED, 2001, 20. or.

¹⁰ Kolektibo feministen aktak, “¿Qué es la violación?”, Maite Álbiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa, 1986, 1. or.

Beraz, funtsezkoa da egia eraiki dezagun, trantsizio politikoaren eta erregimen aldaketaren urteetan mugimendu feminista zeinen garrantzitsua izan zen azpimarratzeko. Eta, ondorioz, garrantzitsua da, orobat, ñabardura bat sartzea aldi hartan halako taldeen eskutik gertatu ziren bortxaketak eta *desagertze behartuak* ulertzeko eran. Alegia: erasoak jasan zituzten emakumeen gorputzak ez dira, besterik gabe, abisuak inprimatzen ziren toki bat, ez dira gizon batzuek beste gizon batzuen emakumeen gorputzetan egindako lurralde-markaketa hutsak; kontrara, emakume haiek, berez, aldaketarako eta eraldaketarako agente ziren –dira–. Eta aldaketarako aktibo politiko horrexen aurka jo zuten eraso, horretarako patriarkatuaren eta gizarte osoaren arma espezifiko bat erabiliz: sexu-indarkeria.

Aldarrikapen feministek jokaleku politiko berri bat eratu zuten emakumeentzat eta, oro har, gizarte osoarentzat. Horregatik, ezin dugu jarraitu emakumeen gorputzaz mintzatzen zer eta mezu bat igortzea beste helbururik ez duen gerra-arma hustzat hartuta: mezu patriarkal bat, lurralde-mezu bat, «haiek, gizonek, beste gizon batzuei» zuzendutakoa. Hala mintzatzek esan nahi du ohore patriarkalaren paradigmatik ari garela. Eta, beraz, agentzia politikorako gaitasunik gabetzat ditugula, eta ez ditugula hartzen aldaketa politikoaren alde borrokatu ziren eraldaketa sozialerako agentetzat. Garai hartako emakumeek garrantzi handiko bide berriak urratu zituzten gogoetarako eta nagusi ziren botere-harremanak birkontzeptualizatzeko, eta aurre egin zioten egiturazko indarkeria matxistari: emakume haiek erregimen aldaketa adierazten eta osatzen zuten; horren parte ziren.

Eta, hain zuzen ere, testuinguru politiko feminista horrexek ematen digu aukera aldi hori beste leku batetik aztertzeko eta izena jartzeko. Memoria eraikitzea egia produzitzean datza, iraganeko zioek oraina eraikitzen dute, isiltasunaren eta inpunitateren aurka ikasi, erreparatu eta borrokatu behar dugu, zeren eta «...*sexu-erasotzaileei eta goi-agintari militarrei zigor penala jartzeak ez du berez bermatzen ez dela berriro gertatuko. Banakako erasotzaile bati zigorra jartzeak, kasu paradigmatico bat izanda ere, ezin du irauli kalean libre-libre dabiltzan beste ehunka mila erasotzaileak babesten dituen zigorga-*

betasunaren munta. Sexu-bortxaketaren dimentsioa ezin da justizia formalaren sistemaren bidez bakarrik konpondu»¹¹.

Berriro ez gertatzeko bermea eraldaketa sozial eta komunitarioaren esparruan bakarrik da posible. Eta horretarako, ezinbestekoa da memoria eraikitzea; izan ere, erreparazioa kolektiboa eta feminista izango da, edo ez da izango. Has gaitetzen bada hemendik, agerira ateratzeko ekintza txiki honetatik, eta jarrai dezagun aldaketa eta ulermen sare kolektiboak josten.

Ez dugu ahaztuko. Ez gara isilduko. Ez zarete sekula gehiago zigorgabe izango, gogoratzen garelako, ulertzen dugulako, eta bizitza xerkatzen dugulako.

NEREA BARJOLA RAMOS

(Feminismoetan eta generoan doktorea eta indarkeria sexualetan aditua)

¹¹ Segato, Rita, Flores en el Asfalto. Causas e impactos de las violencias machistas en la vida de mujeres víctimas y sobrevivientes, 2017, 145. or.

EMAKUME GAZTEEN BAHIKETA ETA BORTXAKETA, 1979-1980

46 urte igaro dira bi pintada hauen artean:

1976ko azaroa: Pintadak Gasteizko Umandi ikastolaren hormetan: “Niños. Vuestras maestras son unas putas. Las vamos a violar a todas”.

2022ko azaroa: Pintadak Donostiako Zurriola ikastolako hormetan: “Feminazis. Viva España”, estilo bereko beste batzuen artean.

ULERTZEA, BIZITZAREN BILA

Sarrera-oharra

Errenteriari buruzko *Memoria partekatu baterantz* lanaren lehenengo edizioan, “Argituz” Giza Eskubideen Elkartetik funtsezko gertakari gisa nabarmendu genituen neska gazteen bortxaketak eta hilketak, 1979ko azarotik 1980ko maiatzera bitartean gertatutakoak, herri hau bete-betean jo baitzuten. Guk dakigula, gutxienez, hiru bortxaketa bikoitz salatu ziren, motibazio politikoekin eta Errenteriarekin lotura zutenak, baina bortxaketa saiakera gehiago ere izan ziren herrian, jazarpenak eta mehatxuak, aurrerago zehaztuko ditugunak.

Errenteriakoez gain, hemen biltzen ditugun kasu gehienak Irun eta Donostia artean gertatu ziren. Beste hiru kasu ere ezagutaraziko ditugu, Loiu, Galdakaon eta Bermeon gertatutakoak, delitu horiek gertatu ziren unearen eta testuinguruaren ikuspegi zabalagoa eskaintzeko.

Gehienak izan ziren 14 eta 19 urte bitarteko **emakume oso gazteei egindako mehatxuak, bahiketak eta sexu-bortxaketak**, eta bi kasutan, horrez gain, neska gazte haiek hil egin zituzten. Biktimak mehatxatu egin zituzten salaketarik egin ez zezaten; hala ere, askok salatu egin zuten. Egindako mobilizazioek eta protesta-ekintzek milaka eta milaka pertsona bildu zituzten, gehienak emakumeak, eta urte haietan mugarri adierazgarria izan zen borroka feministarentzat.

Bortxaketa-kate horretako kasu batzuetan, dagoen informazioa eskasa da, eta ez da egia osoa argitara atera. Horrek areagotu egiten du familien sufrimendua, eta pertsona batzuei zalantza ere eragiten die, ea benetan bortxaketa horiek, tartean bahiketa eta galdeketa zeudelarik ere, motibazio politikoz eginak ote ziren, “politika” zentzu hertsian ulertuta. Horren ondorioz, ezaugarri horiek dituzten bortxaketak jasan zituzten emakume gazteak terrorismoaren biktimen aintzatespena izateko aukeratik kanpo geratzen dira. Esaterako, Bravo eta Rueda familien eskaera ukatu egin zen. Horregatik, txosten honen helburua da gertaera horiek ez ahaztea, eta kasu horiek aitortzearen ardura duenari bultza egitea, aintzat hartuak izan daitezen, maila guztietan.

Horrelako gertaerak, *modus operandi* jakin batekin eginak, ez ziren berriro gertatu hurrengo urteetan, eta irudi lezake norbaitek hura geldiarazteko agindua eman zuela. Hasi ziren bezala, amaitu egin baitziren. Baina, egileak atxilotu zituztelako gelditu ote zen? Eta hala balitz, zergatik ez zuten publikoki iragarri gobernuko agintariak, are gehiago, salatzen ari zelarik funtzionario publikoen ustezko inplikazioa? Ez al zen garrantzitsua hura argitzea, iritzi publikoak ez zezan pentsa Gipuzkoako gobernadore zibilak hasiera-hasieratik baztertu zuena? Orain ere ez al da garrantzitsua hura argitzea? Zer ibilbide judizial izan zuen? Edo ez zuen batere izan? Kasualitate hutsa ote da bortxaketa eta bahiketa horietako bakar bat ere argitu ez izana? Eta, batzuen eta besteen artean inolako loturarik ez badago, nola ulertzen da ikerketa horietako bakar batek ere aurrera ez egin izana? Izan ote zen ikerketarik? Ana Tere Barruetari edo Mari Jose Bravo del Valleri gertatutakoak ez badu loturarik beste bortxaketa eta bahiketa batzuekin, kasualitatea ote da horien egilerik ere ez topatzea?...

Horri guztiari buruz arituko gara hurrengo lerroetan.

Ondoren, Irundik Donostiara bitarteko espazioan, eta batez ere Errenterian eta Pasaian, egileek erabili zuten *modus operandi* delakoaren ezaugarri bereziak azalduko ditugu:

“Errenteriakoak ez dira bortxaketa arruntak”¹, zioen *El Diario Vasco*.
Eta desberdinak badira, zertan dira desberdinak?

Emakumeen taldeek honela laburbildu zuten:

1. Denbora-espazio berean gertatu ziren, eta ez ziren gehiago gertatu hurrengo urteetan.
2. Gatazka politiko eta laboralez jositako eremu geografikoa zen.
3. Eraso bakoitzean bi edo hiru egilek hartu zuten parte, eta, batzuetan, egun berean, emakume bat baino gehiago bortxatzen dituzte (edo saiatzen dira), inguru hartako herrietan.
4. Arma laburrez armatuta daude.
5. Autoak erabiltzen dituzte biktimak bahitu eta babesik gabeko leku batera eramateko, eta ondoren, berriz ere hasierako herrira eramaten dituzte.
6. Biktimei eta/edo haien lagunei galdeketa egiten diete, beren ideologia politikoari buruz, haien gurasoen eta lagunen ideiei buruz...
7. Zigorgabetasun osoz jarduten dute: leku publikoetan, beren aurpegiak eta autoen matrikulak estali gabe, eta batere urduritasunik gabe, seguru, legeak ez zuela haien kontra ekingo; eta hala izan da. Ez da inoiz inongo atxilotetaren edo eparen berririk zabaldu.
8. Hautatzen dituzten biktimak 14 eta 19 urte bitarteko emakume gazteak dira (batez beste 16,9 urte), **bost adingabeak dira**, eta haietako asko bikotekidearekin zeuden.
9. Eraso batzuen bukaeran, erasotzaileek Euskal Herriko emakumeen aurkako bortxaketa gehiago iragartzen zituzten: “ez zara azkena izango”...
10. Batzuetan errebindikatu egiten dute, eta beste batzuetan ez, nahasmena sortuz; baina egiten dutenean, GAE (Espainiako Talde Armatuak) eta BVE (Batallón Vasco Español) siglak erabiltzen dituzte.

¹ El Diario Vasco egunkariaen lerroburua, 1978ko urterriaren 16an.

Koadroan aipatutako kasuez gain, garai horretan bertan gertatu ziren beste hainbat bortxaketa, Loiun (bortxatu eta hil), Galdakaon, Bermeon (autorea ezaguna da, guardia zibila, handik denbora batera neska-lagunarekin bere bu-ruaz beste egin zuena) eta Donostian (bortxatu eta hil). Azken horren ondoren, egileak “airean joan ziren”, ez ziren gehiago azaldu. Norbaitek geldiarazi zuen eraso mota hori, bahiketa, sexu-erasoa, errebindikazioa eta zigorgabetasuna kate bakarrean lotzen zituena. Azken lau kasuetatik bitan, errepikatu egin ziren, bai errebindikazioa, bai emakume gehiago bortxatzen jarraitzeko mehatxua egiteko deiak, eta kasu guztietan, egileen zigorgabetasuna eta na- hasmena.

Aurrekariak

Gertaera horien aurreko urteetan, emakumeen taldeek eta asanbladek sexu-erasoen gorakada salatzen zuten, eta egoera horiek aprobetxatuta, baten bat politizatzen saiatu zen: Gasteizko Umandi ikastolan, beldurra eragiteko asmoz egindako pintadak agertu ziren hormetan: “Niños. Vuestras maestras son unas putas. Las vamos a violar a todas”².

Protesta-manifestazio handiak egin ziren, emakumeen taldeak eta batzarrak sortu ahala, bereziki 77 eta 78. urteetan. Nabarmentzekoak dira Iruñea (1978ko urtarrilean sei bortxaketa salatu ziren), Gasteiz (beste sei salaketa, gutxienez) eta beste batzuk Bizkaian eta Gipuzkoan. *El País* egunkariak honela kalifikatzen zuen:

“... Iruñean bortxaketa bortitz eta traumatizatzaileen oldea gertatzen ari da, eta **bortxatzaileen banda edo bandak zigorgabe geratzen dira (...)** ezaugarriek argi erakusten dute **ultraeskuindarrak** direla”³.

Errenterian, zehazki, Emakumeen Taldeak manifestazio bat iragarri zuen 1978ko urtarrilaren 13rako, bi asteko tartean egindako hiru bortxaketaren aurka: lehenengo, 21 urteko emakume bat; urtarrilaren 2an, Galtzaraborda auzoko emakume bat bortxatu zuten Pekin inguruko zelaian, goizeko 05:30ean lanera zihoala, labanak zeramatzaten bi gizonen; eta hirugarren emakume bat urtarrilaren 11n bortxatu zuten, antza denez haren etxean.

² Garaia, 1976ko azaroaren 18a

³ El País 1978ko urtarrilaren 20koa.

“Denbora batez, bortxaketen psikosia bizi izan zen, eta era guztietako albiste alarmistak zabaldu ziren”⁴. Emakumeen Taldeak komunikatu bat argitaratu zuen, eta, besteak beste, eskatzen zien...

... “Legeari eta Justiziari, gertakari horiek serio har ditzaten, eta merezi duten bezala zigor dizaten; bestela, justizia gure kabuz egin beste erremediorik ez dugu izango”⁵. (...) “Exijitzen dugu gauzak bere lekuan jartzea eta legeak eta gizarteak egintza horiek egiten dituztenak zigortzea, gaur egun kontrakoa gertatzen baita, hau da, gizartearen zigorra biktimak jasotzen du”⁶.

Gipuzkoako Gobernu Zibilak jakinarazi zuen ez zuela baimenik emango mobilizazio hori egiteko. Beste ahalegin batzuk egin zituzten, eta azkenean 1978ko urtarrilaren 22an egin ahal izan zen manifestazioa; Gamon Zumarditik abiatu zen, aurrean “Bortxaketa gehiago ez” pankarta eta sinbolo feminista zituela. Beste eslogan batzuk, horra: “Atzo hura izan zen, bihar agian zu”, “Bortxaketaren aurka, mobilizazioa”, “Erasotutako emakumeekiko elkartasuna”, “Erasoen aurka, batu zaitez, emakume”... Errenteriako Emakumeen Taldeak eta Donostiako Emakumeen Asanbladak deitu zuten. *El Diario Vasco*⁷ egunkarian jaso zenez, “zazpi mila pertsona inguruk parte hartuko zuten”, Errenterian ordura arte egindako mobilizazio handienetako bat.

⁴ IRIARTE “Bikila”, Joxe; ELBERDIN, Luis (1996). Orereta. Herri borrokalari baten historia – Historia de un pueblo rebelde (1976-1983). Errenteria: Autoedizioa.

⁵ Egin, 1978ko urtarrilaren 12a.

⁶ Errenteriako Emakumeen Taldeak banatutako panfletoa, manifestaziora joateko deia eginez.

⁷ El Diario Vasco, 1978ko urtarrilaren 24a.



1978ko urtarrilaren 22an Errenterian egindako manifestazioa.



Egilea: Maite Berradre Zabalza – Foto Valentín

Urtarrilaren 21ean, manifestazioaren bezperan, ehunka pertsona bildu ziren asanbladan Beraungo auzo elkartearen lokaletan: mahai gainean “segurtasun falta (auzoko ‘psikosi’ egoera), zaintzarik eta argiztapenik eza (auzoko sarbideei eta hirigintzari dagokienez)”. Erasoen eta bortxaketen egileen nortasunari buruz zebiltzan susmoak mahaigaineratu zituzten; ”ikerketa-batzorde” bat sortzea eta “kontrol-piketeak” antolatzea erabaki zuten, auzoan era guztietako erasoak saihesteko⁸.

1978ko otsailaren 19an, Beraun auzoan (Errenteria), Gipuzkoa osoan indarra hartzen ari ziren emakume taldeen batzarra egin zen, eta anfitrioia Errenteriako ‘Emakumeen Taldea’ izan zen. Bertan Gipuzkoako emakumeen batzar eta taldeetako 350 ordezkari eta Bizkaiko Emakumeen Asanbladako kideak izan ziren. Batzarrak goizeko 09:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte iraun zuen. Gai hauek landu ziren, besteak beste: sexu-informazioa, sexu-bereizkeria Espainiako Konstituzioaren proiektuan, dibortzioari buruzko lege-proiektuaren azterketa, emakumeentzako amnistia eta Emakumearen Nazioarteko Egunerako aurreikusitako ekintzak⁹. Ordurako ezarriak ziztuzten premisak, 1977ko abenduaren 8tik 11ra Leioan egindako Euskal Herriko I. Jardunaldi Feministetan.

Eli Etxabeguren¹⁰ honela deskribatzen du aktibismo feminista hori: “Emakume-sare horiek guk imajinatu ahala ekintza egin zituzten: manifestazioak, bazkariak, hitzaldiak, piketeak, haurtzaindegiak, itxialdiak, abortatzeko sareak eta abar. Ordura arte ezkutuan zeuden gai asko agerrarazi zituzten eta kaleak hartu zituzten, ordura arte ezin pentsa ahala. Talde autonomoak sortu zituzten, sindikatuekiko edo alderdi politikoekiko inolako loturarik gabe. Oinarria borroka zen, emakumearen kategoria

⁸ Egin, 1978ko urtarrilaren 24a.

⁹ Iriarte eta Elberdin, op. cit., 187. or. Halaber, IZAGIRRE, Koldo (2012). Luzuriaga. Langileen ahotsa eta bizitza. Hogeita bost lekukotasun. Pasaiaiko Udala, Sorginarri bilduma, 55. or.

¹⁰ ETXABEGUREN ARANZABAL, Eli (2017). Memoria, emozioak eta subjektibotasuna: trantsizio garaiko aktibismo feministaren analisisa Errenteriako Emakumeen Taldearen bitartez (1975-1980). Masterra Feminismo eta Genero Ikasketetan. Ikerketa lana, 38. or.

edozein ideologia edo sinesmenen gainetik ezarri nahi zuena, mugimendu anitz batean”¹¹.

Koldo Izagirre idazle pasaitarrak idatzi zuenez, 1978ko mobilizazio horien ondoren, urte eta erdira, 1979ko urrian, **“emakumeak pistolaz mehatxatuta bahitu, galdekatu eta bortxatzeko ekintzen zurrunbiloa hasi zen”**¹². Lan honetan bortxaketa horiek izango ditugu ardatz.

¹¹ EPELDE, Edurne; ARANGUREN, Miren eta RETOLAZA, Iratxe (2015). Gure genealogia feministak: Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat. Espartza Galar: Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro feminista, 115-160. or. Eli Etxabegurenek aipatua, op. cit., 38. or.

¹² IZAGIRRE, Koldo. Op. cit., 55. or.

Gertaeren testuingurua

1979ko azaroaren 14tik 1980ko maiatzaren 8ra bitartean (lan honetan aztertutako lehen eta azken bortxaketak), ETA militarrek 34 pertsona hil zituen (horietako bat Errenterian, Miguel Rodriguez), eta Komando Autonomoek 3 gehiago (gizonak guztiak ere). Gainera, ETAm, ETApm eta CCAAren 2 bahiketa eta hogeitatu atentatu inguru kontabilizatzen dira. Zazpi hilabetekoaldi horretan bertan, talde parapolizialek eta eskuin muturrekoek 48 atentatu eragin zituzten Euskal Herrian eta 8 pertsona hil zituzten (2 emakume eta 6 gizon).

1980an, “terrorismo ultraeskuindar eta parapolizialak (...), Aliantza Apostoliko Antikomunista (Triple A) edo Batallón Vasco Español (BVE) bezalako marken azpian ezkutaturik, 28 hildako (% 21,2) eragin zituen. (...) Badira beste bi krimen, egileen inguruko zalantza eragiten dutenak”¹³. “Marka” horiei Mariano Sanchez Soler kazetari eta idazleak “estaldura-siglak” deitzen die¹⁴ eta horietako 27 aipatzen ditu.

Madrilen, 18 urteko Yolanda Gonzalez Martinen bahiketa eta hilketa, 1980ko otsailaren 3an, Batallón Vasco Español taldeak (BVE) hartu zuen bere gain. Yolanda Deustukoa (Bilbo) zen, Madrilgo Ikasleen Koordinakundearen ordezkaria, eta Langileen Alderdi Sozialistako (PST) kidea.

¹³ FERNANDEZ SOLDEVILLA, Gaizka eta HIDALGO GARCIA de ORELLAN, Sara (koord.). Erretiratzearen heroiak. ETA politiko-militarraren desegitea. Mario Onaindia Fundazioa – Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa. Madril: Tecnos. Sarrera, 33. or.

¹⁴ SANCHEZ SOLER, Mariano (2022). La larga marcha ultra. Bartzelona: Roca argitaletxea, 425. or.

“Kasu hori **izutu eta ikeratzeko** saiakera argia izan zen (...) Ondorengo ikerketa judizialaren erantzunean, ultra mentalitateko zenbait epaileren eta polizia-estamentuen **estaltze, eroskeria eta ikerketa eragozteko** ahalegin nabarmenak ageri dira. (...) Ultra-eskuindarrek armadako arauzko armamentua zuten (PO eskuko granadak, detonagailuak...) eta Guardia Zibilaren komunikatzeko hartze-igortze gailuak. **Zenbait froga era misterioztuan desagertu ziren**”.¹⁵

Orain arteko testuan letra lodiz nabarmendu ditugun elementuak konstante bat dira lan honetan jasotako gertaeretan:

- izua eta ikara eragitea,
- estaltzea, eroskeria eta ikerketa eragozte, denak nahasita,
- zenbait froga era misterioztuan desagertu ziren...

Errenteriarri dagokionez, aztertutako aldian bertan, Grupos Armados Españoles taldeak (GAE) jarritako bonbak dira aipagarriak, Errenteriako Udalean (bi aldiz) eta Lezo, Hernani edo Bedian [ekainean Elgetakoa izan zen, eta uztailean Lemoakoa], guztiak ere Herri Batasunaren (HB) alkatetzak zituztenak, lehenengo udal-hauteskundeen ondoren, eta orobat, Jesus Mari Ijurkori anputazio larriak eta Mari Karmen Ilarramendiri zauri larriak eragin zizkien bonba-atentatua, Errenterian, 1980ko martxoaren 28an.

Oro har, Irun-Donostia eremua langileen mugimendu borrokalariagatik nabarmentzen zen, ugari zirelarik grebak eta borrokak, solidarioak nahiz bizi-baldintzak hobetzearen aldekoak. GAEk erasoak bere gain hartzeko *El Diario Vasco* egunkarira bidalitako oharrean, 1980ko urtarrilaren 20an, **“herritar gatazkatsuak”** ziren Gipuzkoako eskualde horretakoak.

¹⁵ LANDA GOROSTIZA, Jon Mirena (2008, hiru hizkuntzatan argitaratu da 2009ko martxoan). “Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena”. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, 392-293. or.

Gainera, hilabete horietan, emakume-taldeek, eta bereziki Bizkaiko Emakumeen Asanbladak, indarrak batu zituzten Basaurin hamar emakume eta gizon bat epaitu zituztenean, abortatu, abortatzen lagundu edo abortatzeko aholku emateagatik. 1979ko urriaren 6an, emakume-talde bat Bilboko Udalaren osoko bilkuran sartu zen, eta hilaren 20an, Justizia Jauregian, batzarrean bildu ziren 300en bat lagun (gehienak emakumeak), epaiketa bertan behera uzteko eskatzeko. Poliziak “indarkeriaz kargatu zuen”, *El País*en¹⁶ hitzetan. Egunkari horrek “Polizia Nazionaleko zenbait kidek” oihuka esan zizkietenak jaso zituen, besteak beste, “Zorras” edo “Iros a abortar fuera”.¹⁷

Akusatutako emakume bat ez zegoenez, urriaren 26an behin-behinean eten zen epaiketa. Kanpoan, 3.000 emakume inguru bildu ziren abortu libre eta doakoa izateko eskubidea, antisorgailuak legeztatzea eta epaitutako pertsonentzako amnistia aldarrikatzeko: “Nik ere abortatu dut” ... ahozko epaiketa 1981ean bigarren aldiz eten ondoren, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak 1982an lortu zuen epaiketa burutzea, absoluzio-epaia emanez guztientzat, abortuak egin zituen pertsonarentzat izan ezik; hura amnistiatu egin zuten.



Bilboko Epaitegia. Iturria: Txema Ormazabal

¹⁶ El País 1979/10/21.

¹⁷ Ibidem.

“Abortatzeko eskubidearen aldeko borroka ‘Pandoraren kutxa’ ireki zuen nolabait, eta beste gai asko azaleratu: antisorgailuak, sexualitate askea, sexualitatea bizitzeko beste modu batzuk, harreman berriak, elkarrekin bizitzeko modu berriak, askotariko familia ereduak... Horrek guztiak ekarri zuen mugimendu bat, gero eta handiagoa, ordena patriarkalaren eskema bakar eta zurrun hura apurtu zuena”¹⁸.

Horregatik dihardu Memorandra-Oreretako Memoria Feminista taldeak Errenteriako gertakarien memoria historikoa biltzen, zehazki 1975ean hasi eta abortuari buruzko lehen legea –beti kolokan jartzen den horixe– indarrean jarri arte gertatukoena memoria.

Gure historia arakatu nahi horretan, 2015ean, hortxe dugu *Las buenas compañías*. Bertha Gaztelumendik eta Nuria Casalek zuzendu zuten lan hori, Larrotxene Bideo eskolan, Memorandra-Oreretako Memoria Feministaren ikerketa lan militantean oinarrituta. “Film labur dokumental onena” saria eskuratu zuen XX. Errenteria Film Laburren Jaialdian. Bi zuzendariek Memorandra taldeak egindako lanetik abiatuta eraiki zuten haien kontakizuna.

Filmak gogorazten du nola borrokatu ziren mugimendu feminista eta hainbat eta hainbat emakume, emakumeen eskubideak erabat zapalduta zeuden garai batean, abortatzeko eskubidea, gure gorputzen gaineko eskubidea eta sexualitatea libre bizitzeko eskubidea lortzeko. Urte haietan, errepresio frankistaren pean eta klandestinitatean, emakume feministek ahal zuten era guztietan egin zuten borroka, eta eskura zituzten bitarteko guztiak erabili zituzten beste emakume batzuei laguntzeko baldintza seguru eta duinetan abortatzen.

2023an, *Las buenas compañías* izenburu bera duen film luzean jaso zuen Silvia Munt zuzendariak Errenteriako emakume-talde horren historia.

¹⁸ “Memorandra. Proyecto feminista de investigación militante. País Vasco”. Testigantzak hemen: Decisio. Saberes para la acción en educación de adultos 43-44, Michoacán (Mexiko), 2016ko urtarrila-abuztua, 69. or

Ziurgabetasuna Erreterian

Marijose Molina Erreteriarako Emakumeen Taldekoa eta Memorandarrerretako Memoria Feminista taldekoa zen, eta Argituz ekimenetik elkarrizketa egin genion 2014an. 2018ko abuztuaren 18an hil zen. Erreterian 79-80 urteetan bahiketa eta bortxaketa jasan zuten zenbait emakume gazterekin eta haien senideekin elkartzeko aukera izan zuen berak. Haien lekukotasuna beraien ahotik entzun ahal izateak konbentzitu zuen bortxaketa haietako asko **motibazio politikoak** eragindakoak zirela, hasieran berak ere hain argi ikusten ez bazuen ere:

Mari Jose Molinak, 2015eko otsailean, Erreteriarako Argituz taldearen lehen txostenerako bortxaketa horiei buruz eman zuen lekukotzatik hautatu dugu pasarte hau:

“Guztiak antzeko ezaugarriak zituzten: Lezoko kaira eramaten zituztela –orain ez dakit gauza nola dagoen han, baina lehen ez zen nornahi sartzen-. Pistolekin apuntatzen zituztela, gauzak galdetzen zizkietela. (...) **Nik, hasieran, ez bainuen sinesten, ezinezkoa zela esaten nuen. Baina familiekin eta neska haiekin hitz egiten genuenean, egia da ezaugarri horiek guztietan ateratzen zirela.**”



Marijose Molina. Egilea: Mendi Urruzuno

Eta erasoak ugaritu zirenez, argi zegoen **emakumeak gerrarako arma gisa hartzea zela arrazoia. Bortxaketa pila bat zigor gisa, zehazki, Erreteriarako herritarrek zigortzeko**”.

Gauzak horrela, ez zen harritzekoa izan hainbat erakunde, alderdi eta komunikabide gertaera horien atzean nor egon ote zitekeen gogoeta egiten hastea. Bahiketa-kate hori baino urtebete lehenago, 1978ko maiatzaren 29an, Rodolfo Martín Villak, garai hartan Barne Ministro zenak, aitortu egin zuen hainbat polizia “inkontrolatuen” erasoetan parte hartu zutela. Orduko hartan, Polizia Armadako bederatzi kide, destinoa Gipuzkoako hiriburuan zutenak, Euskal Herrikan kanpora lekualdatu zituzten, “parte-hartze frogatua izan zutelako”¹⁹ aurreko hilabetean Donostiako Parte Zaharrean pertsonen, ibilgailuen eta hiri-altzarien aurka izandako erasoetan. Garaitu hartan ere, Guardia Zibila jakinarazi zuen Intxaurrondoko kuarteleko bi agente “kidego horretatik kanporatu zituztela, bortxatzaile gisa identifikatu ondoren”²⁰. Gainera, 1980ko apirilean izan zen Bermeoko P.G.L. guardia zibilaren kasua, kronologian, aurrerago, aipatzen dena.

Bahiketa eta bortxaketa haiei buruz hasitako ikerketa poliziala eta judiziala handik gutxira itxi zen. Argi eta garbi deskribatzen du Jose Antonio Perez historialariak, Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentrorako: “Egiaztatuta dago ikerketa-lana **zeharo murrizta** izan zela, hutsala ez esateagatik, Auzitegi Nazionalaren epaian jasotzen denaren arabera”²¹. Eta ondoren honako hau

¹⁹ 1978ko urriaren 4an, Donostiako Poliziaren Burutza Nagusiak Barne Ministeriora bidalitako agiri batek egiaztatu zuen Donostian ziharduten Fuerzas de Orden Público (FOP) direlakoetako hainbat kidek urteko lehen hilabeteetan inkontrolatuen ekintzetan parte hartu zutela. Polizien inplikazioari buruzko informazio gehiago Cambio 16 aldizkarian, 1980/02/24ko 429. zenbakian. Egin egunkariak ere, lerroburu hau eman zuen lehen orrialdean (1978/05/30): «Polizia 'gerrillariak' Euskaditik eraman dituzte». Aurretitulua: «Barne Ministerioak aitortu behar izan du ordena publikoko indarretako kide batzuk inkontrolatuen taldeetan aritu direla».

²⁰ NUÑEZ, Luis (koord., 1994). Euskal Herria eta askatasuna. 1977-1980. 5. liburukia. Tafalla: Txalaparta, 81. or.

²¹ PEREZ PEREZ, Jose Antonio (koord., 2021). Terrorismoaren Historia eta Memoria Euskal Herrian, 1968-1981. I. liburukia. Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa, Valentin de Foronda eta EHU. Confluencias Editorial. Casa Europa bilduma. VIII. kapitulua, 590. or.

eransten zuen: “Izan ere, **ez da egiaztatu Poliziak ikerketa-jarduerarik egin zuenik**” (Perez 2021: 655); baieztapen zorrotza, inondik ere.

Autore horrek berak azaldu zuen Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak, zortzigarren sekzioak, 2002ko urriaren 29an eta 2003ko urtarrilaren 22an, ez zuela aintzat hartu Mari Jose Bravo del Valleren (hemen jaso dugun azken bortxaketa eta hilketa kasua) amak egindako eskaera eta demanda, Auzitegi horren arabera, “eskura dauden zantzuak ikusita, atentatu terroristak izan zela ondorioztatzeko daturik ez” zegoelako²². Beraz, hemen duguna zera da, alde batetik, biktima horiek eta haien familiek, lehenik, delitu horiek jazartzeko “Espainiako agintarien inplikazio eskasa” aurkitzen dutela (Perez, 2021: 592), eta ondoren, justizia egiteko “zantzurik” ez dagoela erantzuten zaiela.

Luis Castells historialariaren ondorioa ere (2021eko martxoaren 25eko *El País* egunkarian jaso) “ezin argiagoa” da, Luis R. Aizpeolea kazetariaren hitzetan. Luis Castellsek berak ere esan zuen “Ikerketa-jarduera zeharo murrizta izan zela, **hutsala ez esateagatik, Auzitegi Nazionalaren epaiaren arabera**. Hura gertaera tragikoaren egileekiko **nolabaiteko konplizitatearen** ondorio izan ote zen, edo urte haietako Poliziaren **eraginkortasunik ezaren** ondorio izan ote zen, **argitzen zaila den auzia da**”.

Ildo beretik, 2008an ere baieztatzen zen, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak “Talde inkontrolatuek, eskuin-muturrekoek eta GALEk eragindako Terrorismoaren Biktimei buruz” prestatutako txostenean: “Indarkeriazko ekintza horietako kasu askotan **poliziak egindako ikerketa urriak eta eskasak** eragozten du gai honetan garrantzi berezia duen datu bat argitzea, alegia, norainoko **konplizitatea, lankidetzaren edo inhibizioa** izan ote zuten polizia-instantzia jakin batzuek ekintza kriminal horiekiko”²³.

²² Jose Antonio Perez Perez. Op. cit., 589. or.

²³ Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (2008). “Talde inkontrolatuek, eskuin-muturrekoek eta GALEk eragindako Terrorismoaren Biktimei buruzko Txostena” Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila. Lehen ondorioa, 93. or.

Hala ere, txosten horretan bertan, Maixabel Lasak, Txema Urkijok eta Jaime Arresek osatutako taldeak nahikoa elementu ikusi zituen Maria Josefa Bravo del Valle eta Francisco Javier Rueda Alonso **terrorismoaren biktimatzat** hartzeko, “**Batallón Vasco Español delakoak bere gain**” hartutako **atentatuan hil baitzituzte**²⁴.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren beste argitalpen batzuetan, hala nola *Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimak* (2008: 482-484) eta *Euskal kasuan bizitzeko eskubidearen aurka izandako urraketen argazkiak, herriz herri* (2016: 122) argitalpenetan, gertaera horiek jada jasota daude **motibazio politikoko bortxaketa** gisa. Bestalde, COVITE Víctimas del Terrorismo del País Vasco elkarteak Batallón Vasco Español (BVE) seinalatu zuen Mari Jose Bravoren hilketaren egile gisa, ‘Izuaren Mapan’. Familiak ere hala uste izan du urte hauetan guztietan. Horri dagokionez, 2021eko ekainaren 5ean, Donostiako Udalak Mari Jose Bravo del Valle BVEren biktimatzat hartuta omendu zuen, eta plaka bat jarri zuen, Donostiako Loiola auzoko Latsari plazan, neska gurasoekin eta bi anaiekin bizi zen atariaren ondoan.

(Egileei buruzko informazio gehiago, eranskinean).

²⁴ Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. *Ibidem*, 36. or.

Gertaeran denbora-lerroa: bahiketak eta bortxaketak

DENBORA-LERRO GISA, ARMAK ETA BAHIKETAK TARTEKO EGINDAKO BORTXAKETA HORIETAN JARRIKO DUGU ARRETA:

1979

LEHEN BORTXAKETA

Azaroaren 14a. 20:20ak aldera, 16 urteko neska bat, M.A., Idazkaritzako ikaslea, mutil-lagunarekin (J.A.P, 17 urtekoa, Herrera auzoko bizilaguna) paseatzen ari zen, Alaberga-Capuchinos auzoan (Errenteria). Bi gizon armatuk **paretaren kontra jarri zuten bikotea, miatu, eta dokumentazioa eskatu zieten**, Poliziak egin ohi duen bezala, polizia gisa aurkeztu ez baziren ere. Neskak ez zeraman karneta aldean, baina mutil-lagunak bai. Erasotzaileetako batek mutila aparte eraman zuen, pistolarekin apuntatuz eta neskarengandik aldentuz. J.A.P.-k burua itzuli zuenean, M.A. Seat 850 urdin batean sartu zutela ikusi zuen. Autoaren barruan, eskuak lotu eta galdetu zioten: “Nor garela uste duzu?”, eta, aldi berean, **bere eta familiakoen iritzi politikoei buruz galdekatzen aritu ziren**, ETari buruz zer pentsatzen zuten... M.A.k. erantzun zuen ez zutela ideia politikorik.

Autoarekin Larrañaga ingurura joan ziren, trenbidearen tunelaren irteeran, Lezon; han biluztera behartu eta bertan bortxatu zuten biek. Erasoa amaitu ondoren, “Errenteriako hiltegiraino eraman zuten; han, askatu aurretik, pistolekin apuntatu eta esan zioten atzera ez begiratzeko, eta bera eta mutil-laguna hiltzeko mehatxua egin zioten, zerbait kontatzen bazuten. “*Ezagutzen gintuztela*” esan zieten” (*El Diario Vasco*). Barre eginez, azkenean “ETakoak” zirela esan zioten.

Hori guztia lasai asko egin zuten, inork ikusteko batere kezkarik gabe.

Azaroaren 16a. Prentsaurrekoa, Emakumeen Taldeak, KAS Emakumeak taldeak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta. Familiak, bi abokatuk eta zenbait talde feministak parte hartu zuten. Familiak adierazi zuen salaketa jarria zuela, eta bi bortxatzaileen ezaugarri fisikoak, hitz egiteko modua, erabilitako ibilgailua eta abar azaldu zituen.

Egun hartan bertan, kalez jantzitako bi polizia biktimaren etxera joan ziren. Amarekin hitz egin zuten, eta aurpegiratu zioten abokatuengana jo izana haiek kasuan esku hartu aurretik. Bereziki haserre zeuden abokatuak emandako iritzi-arekin, uste baitzuten bortxatzaileak kidego polizial edo parapolizialetako kide izan zitezkeelako zantzuak zeudela. Hori entzunda, amak hauxe erantzun zien: **“Eta nor ibiltzen da ba lasai-lasai kalean pistolarekin!”**, eta orduan, **poliziek Komisariara eraman zuten ama**. Polizia-buruak esku hartu ondoren utzi zuten aske²⁵.

Hurrengo egunetan **mehatxu anonimoak** jaso zituen familiak.

Errenteriako Emakumeen Taldeak **azaroaren 18an** manifestazio bat egitera deitu zuen. Deialdia egiteko idazkian zera zioten:

“(…) Kontua da antzeko kasuak gertatzen ari direla, baina ez direla salatzen, lotsagatik, edo errepresalien beldurragatik. (...) Beste behin ere salatzen dugu bortxaketa zera dela: emakume izateagatik soilik emakume bati egin dakioken erasorik gailena. Halaber, salatzen dugu ekintza hori, beste batzuekin batera, herria jasaten ari den errepresio-testuinguru orokorrean sartzen dela (atxiloketak, tortura, pistola aldean dutela kalean herritarrak mehatxatzen dabiltzan elementu ‘inkontrolatuak’)²⁶”.

²⁵ Egin, 18 de noviembre de 1979ko azaroaren 18a.

²⁶ Errenteriako Emakumeen Taldeak manifestaziorako egindako deialdiaren panfletoa, zeinarekin bat egin zuten Donostiako Emakumeen Asanbladak, KAS Emakumeak taldeak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak.

Manifestazioa amaitzean, "Zutik emakumeak, hautsi zure kateak" abestu zuten.

BIGARREN BORTXAKETA

Abenduaren 15a. M.C.C.k 14 urte zituen, eta larunbatean gaueko 21:00etan paseoa zebilen ikaskide batekin, L.V.L., Errenteriako Udal Hiltegiaren inguruan. Bi pertsona hurbildu, pistolaz armatuta, banandu egin zituzten, eta neska sarrarazi zuten Seat 124 berde metalizatu batean, SS matrikulakoa. Lezoko tunelera eraman eta biek bortxatu zuten. Amaitu zutenean, Campsaren parean utzi zuten, Errenteriatik Lezorako errepidean, esanez "**lasai egon, ez zara azkena izango**" (*Diario Vasco*, abenduak 18).

Aurreko kasuan bezala, bortxatzaileak bi izan ziren, eta lasaitasun osoz jokatu zuten. Eta **bortxaketa gehiago iragarri zituzten.**

Abenduaren 16a. Beraungo Auzo Elkarteak elkartu zen gertaerak aztertzeko, eta Errenteriako Emakumeen Taldeak manifestu bat atera zuen azken bortxaketa gaitzesteko: "Arazoa larria, amorragarria eta lotsagarria da, eta erantzukizunak eskatu behar dira, gehiegikeria horiei aurre egiteko, zoroek eginak izan, edo **Errenteria aldean izua eta ondoeza eragin nahi dutenek eginak izan**"²⁷.

Iluntzean, Errenteriako Emakumeen Taldeak prentsaurrekoa eman zuen, eta gertaeren ikerketa eta errudunentzako zigorra eskatu zuen. **Abenduaren 17a.** Udaltzako Osoa bildu zen, alkatea eta hogeiki zinegotzi eta alkateorde bertan zirela, eta **aho batez** onartu zen:

- lehen bortxaketari erantzunez egindako idatzia berrestea,
- gai hau **argitzen ez dela ikusirik**, eta elementu horien jokabidean atzematen den **zigorgabetasunari aurre egiteko**, herritar guztiei dei egitea, auzoetan zaintza indartu eta Udaltzaingoarekin batera lan egin dezaten, edozein susmoren aurrean,

²⁷ El Diario Vasco, La Voz de España, Egin...

- gertaera horri buruzko informazioa lortzen duen jendeak Udalari jakinaraztea,
- gobernadore zibilarekin elkarrizketatzea, bortxaketa horien inguruan egindako ikerketen berri eman dezan;
- Udalak herrian eginen den manifestazioa babestea. Batzorde bat osatu zen familiarrekin, Udaleko kideekin, emakumeen taldeekin... Gipuzkoako gobernadore zibilarengana joateko.

Galtzarabordako Auzo Elkartek, era berean, argiteria gehiago eta udal zaintza gehiago eskatu zituen, eta gobernu-agintaritzari eskatu zion “gertaera guztiak argitzeko eta errudunei zigorra jartzeko”.

Abenduaren 17a. Eraso jasan zuen neska nerabearen familiak salaketa aurkeztu zuen epaitegian. Erasotzaileei buruzko datu gehiago ezagutu ziren: bat beltzarana zen, bizarra zuen eta aurpegia baztanga-pikatua bezala zuen; bestea ilehoria zen.

Manifestazio zabala Emakumeen Taldearen herri-batzarraren ondoren: “Bortxaketaren aurka, mobilizazioa”, “Banda faxistak eta parapolizialak desegin”...

²⁸**Abenduaren 18a.** Batzarrak eta manifestazioak, auzoka, guztiek Herriko Plazan bat egin arte: “Autodefentsa”, “Gaur ez da zure alaba, bihar izan daiteke”, “Erantzunik gabeko erasorik ez”... Milaka pertsonak hartu zuten parte bi egunetan. Errenteriako Emakumeen Taldeak berriro esan zuen “kasu honetan, aurrekoan bezala, **bizkarra ongi estalita dutela. (...) Bortxatzailearen zigorgabetasuna salatzen dugu**”²⁹.

Bortxaketen motibazio politikoa salatzen zuten aipamenak ugaritu egin ziren, erasotzaileen ezaugarriengatik eta *modus operandi* delakoagatik.

²⁸ Elberdin. Op. cit., 220. or.

²⁹ CASTELLS ARTECHE, Miguel (1982). Radiografía de un modelo represivo. Donostia: Ediciones Vascas, 133. or.

Abenduaren 19a. Errenteriako Udalaren Osoko Bilkuratik sortutako batzordea Joaquín Argote gobernadore zibilarekin bildu zen, Donostiako Gobernu Zibilean.

Argituzek informazioa bildu du eta bilera hartan egondako emakumeetako batekin, G.A.rekin, elkarrizketatu da. Errenteriarrek gobernadore zibilari erasotzaile eta bortxatzaile horien ezaugarriei buruz egin zioten deskribapena, laburbilduta, hauxe da:

- gorputz-miaketa,
- identifikazioak eskatzea,
- mehatxua pistolekin,
- ideologia politikoari buruzko galdeketa,
- jokabide hotza,
- eta, lehenengo bortxaketan, portuko kontrol guztiak gainditzen dituzte, inolako oztoporik gabe.

Horiek entzunda, gobernadore zibilak froga gehiago eskatu zizkien eta, bertan zeuden pertsonen aurka kereilatu beharrik ez izateko, defentsarako eskubidea argudiatu zuen. Halaber, erakutsitako armak jostailuak izan zitezkeela argudiatu zuen. Poliziarengan konfiantza handiagoa izateko eskatu zien, eta legez kanpokotzat jo zituen ikerketa-batzordea eta balizko autodefentsa-moduak.

Udalak eta Emakumeen Taldeak, berriz, eutsi zioten elementu parapolizialak ote ziren susmoari, eta eskaintzen zitzairen zaintza polizialari uko egin zioten, eraginkorra ez zela iritzita.



Orereta. Herri borrokalari baten historia (1976-1983)³⁰

1980

HIRUGARREN BORTXAKETA

Urtarrilaren 4a. 19 urteko neska bat bortxatu zuten Irunen. 19:30ak aldera, hiru pertsonak neska auto zuri batean sarrarazi zuten indarra erabiliz. Hirurek inongo erreparorik gabe bortxatu zuten, biktimak zehaztu ezin duen leku batean, eta handik ordu batzuetara Santa Elenako ur-biltegi zaharrean utzi zuten. Leku hori “gutxienez beste hiru aldiz erabili da gauza bera egiteko”, 1980ko urtarrilaren 10eko *El Diario Vascoren* arabera.

³⁰ Elberdin, Luis, IRIARTE, Joxe. “Orereta. Herri borrokalari baten historia. Historia de un pueblo rebelde”. 1996, p. 221.

LAUGARREN BORTXAKETA, ETA HILKETA

Urtarrilaren 8a. Ana Tere Barrueta Alvarez, 19 urtekoa, ez zen Loiuko (Bizkaia) bere etxera itzuli gau hartan. Kezka eta alarma handiak ziren etxean. Gazteak Idazkaritza ikasten zuen, euskara hobetzera Sondikako ikastolara joaten zen, eta Algortan haurrak zaintzen aritzen zen. Izekoen arabera, “manifestazioetara joaten zen, baina hori ohikoa zen bere adineko nesken artean”³¹.

Urtarrilaren 9a. Goizeko lehen orduan, Ana Tere Barrueta Alvarez hilda aurkitu zuten, etxetik ehun metrora, inguruan euskara liburuak barreatuta zituela. Kamiseta zuen jantzi bakarra, zeharo odoleztatuta, eta bortxatu eta jipoitu izanaren zantzuak erakusten zituen. Objektu zorrotz batekin egindako zauriak atzematen ziren³². Bere gerrikoa lepoaren bueltan bildua zuen.

Ez zioten ezer lapurtu –ez dirua, ez eraztuna, ez erlojua, ez belarritakoak–, eta arrastaka eraman zuten aurkitu zuten lekura [Alde horretatik, Maria Jose Bravoren kasua antzekoa da, lau hilabete geroago, Loiolan: beste leku batera arrastaka eraman zuten eta ez zioten ezer lapurtu]. “**Ez dira gaizkile arruntak**”³³, esan zuten emakumeen taldeek. Familiak ere hala uste zuen, Argitzuz taldeari, bere garaian elkartu zirenean, esan ziotenez.

Urtarrilaren 10a. 3.000 lagun inguru joan ziren hiletara, Loiuko San Pedro elizan. “Hileta jendetsua neska bortxatuaren alde”, izan zen *La Voz de España* egunkariaren lerroburua. Ondoren, salaketa-manifestazioa: pankarta lila kolorekoa zen, krespoi beltzarekin, Emakumeen Asanbladak sinatua: “Erantzunik gabeko bortxaketarik ez”, “zigorra bortxatzaileei”, “hemen gaude, guk ez dugu bortxatzen”, “Ana Tere, guk ez dugu ahazten”,... Areatzan “Zutik Emakumeak” abestu zuten.

³¹ Punto y Hora, 1980/01/23, 17. or.

³² SANCHEZ SOLER, Mariano (2010). *La transición sangrienta (1975-1983)*. Bartzelona: Península, 370. or.

³³ Esku-orri bat banatu zen Erreenteriako manifestazioetan, “Euskadiko bortxaketa-katearen zerrenda” izenburupean, 1979tik 1980ra bitartean gertatutako bortxaketa gehienak jasotzen zituena.

Urtarrilaren 11. Emakumeen taldeek proposatuta, goizeko 10etan informazio batzarra eta isiluneak egin ziren, Ana Tere Barrietaren aldeko dolua adierazteko.

Iturri batzuetan, kasu honetan egilea Grupos Armados Españoles (GAE) taldea zela egiaztatzen da (*Motibazio Politikoko Indarkeriak eragindako giza esku-bideen urraketen biktimei buruzko txostena*. Eusko Jaurlaritzak, 2008), eta egiaztatzen da, halaber, hilabete berean Alonsotegiko Aldana tabernan jarritako bonbaren egilea GAE taldea bera zela. Hala ere, argitzeko arazoak daude, gertatutakoa ikertu ez zelako. Beste historialari batzuen ustez, Ana Tere Barrietaren hilketaren egilea Batallón Vasco Español (BVE) batailoia izan zen³⁴ edo BVEk erreibindikatu zuela esan zuten³⁵. “Marka” parapolizialen dantzak aurrera jarraitzen zuen jendea despistatzeko.

Urtarrilaren 12a. Informazio-batzarra eta protesta-kontzentrazioa Asuako geltokiaren ondoan (1.500 pertsona) eta manifestazioa Bilbon (6.000 pertsona), Bizkaiko Emakumeen Asanbladak deituta. Poliziak (FOP) gogor eraso zien manifestariei.

Urtarrilaren 12a. “Irungo Emakumeak” elkarteak antolatuta, 3.000 pertsona inguru manifestazioan atera ziren Irungo San Juan plazatik, 19 urteko neska irundarraren bortxaketaren eta Loiuko Ana Tere Barrieta Alvarezen bortxaketaren eta hilketaren aurka. Pankarta: “Bortxaketaren aurka, mobilizazioa”.

Urtarrilaren 12a. Nafarroako Koordinakunde Feministak deituta, Nafarroako hiriburuan bortxaketen aurkako manifestazioa; Poliziak (FOP) gomazko pilotekin tiroka eraso zien. Emakume bat atxilotu eta salaketa jarri zioten iraintzeagatik, eta adin txikiko bat ere bai, objektuak botatzea leporatuta.

³⁴ Horixe da Mariano Sanchez Solerren kasua. Op. cit., 370. or.

³⁵ GRIMALDOS FEITO, Alfredo (2004). *La sombra de Franco en la Transición*. Madril: Oberon, 295. or.

Urtarrilaren 13a. Bortxaketen aurkako manifestazioa Donostian: 2.000 emakume. Aurrean, Donostiako Emakumeen Asanbladaren pankarta, bortxaketengatik protesta eginez.

Emakumeen Asanbladaren panfletotik: “Guk EZETZ esaten diegu bortxaketei, eta proposatzen dugun irtenbidea ez da polizia gehiago jartzea, EKINTZETARA JOTZEA DA. Emakume guztiei dei egiten diegu autodefentsa-piketeak eta ikerketa-batzordeak sor ditzaten, bortxatzaileen datuak zabaltzeko, ezagutu bezain laster”³⁶.

BOSGARREN BORTXAKETA

Urtarrilaren 13a, goizaldea. Mutil-lagunarekin auto barruan zegoela, 18 urteko M.C. neska gaztea bahitu zuten Erreterian, Etxeberrietan, pistolarekin mehatxatuta, eta ondoren bortxatu egin zuten Oiartzungo Arkale auzoan. **Hiru** erasotzaileetako bat –aurpegia agerian zutela– mutilarekin geratu zen Erreteriarako tren-geltokiaren ondoan, eta **galdeketa egin zion**, bere izenaz, helbideaz, gurasoen jardueraz eta abar. Beste bi erasotzaileek, berriz, Seat 128 auto gorrian Oiartzun aldera eramane zuten neska eta, bortxatu aurretik, **hari ere galdeketa egin zioten**, familiaz, aitaren jaioterriaz, lan egiten zuen enpresaz, mutil-lagunaz eta abar.

Sexu-erasoaren ondoren, autoan sartu zuten berriro, eta Erreteriarantz itzultzen ziren bitartean, bortxatzaile batek besteari galdetu zion: “Hil egingo dugu?”, eta besteak erantzun: “Ez, neska nahiko ondo portatu da”. Iztieta auzoan (Erreteria) utzi zuten, etxetik hurbil.

³⁶ DÍEZ MINTEGUI, Carmen, GARMENDIA ETCHENIQUE, Miren eta GOROSPE PASCUAL, Begoña (2022). Crónica de los primeros años del movimiento feminista en Donostia (1976-1982). Donostiako Udalaren Berdintasun atalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Orain atalak finantzaturako edizioa. VI. eranskina, 281. or.

Bortxatzaileek jarraitzen zuten lasaitasun eta zigorgabetasun osoz jokatzeko. Galdeketa egin zuten, inork ikusteko beldurrik gabe, aurpegia agerian zutela jokatu zuten, biktima berriro Errenteriara eraman zuten, eta **mehatxatu egin zuten**.



M.C. bahitu zuteneko lekua eta Errenterian herritarrek emandako erantzuna. Arg.

La Voz de España, 1980ko urtarrilaren 15a.

SEIGARREN BORTXAKETA

Urtarrilaren 13a. Gau horretan bertan. 18 urteko neska bat bahitu zuten Trintxerpe-Pasaian, eta bortxatu egin zuten, **lehengo bortxaketaren egileek be-
raiek**, antza denez, biktimak egindako deskribapenak bat baitatoz aurreko salaketekin.

El Diario Vasco egunkariak honela deskribatzen ditu erasotzaileak: “20 eta 25 urte bitarteko bi gizon gazte, bata ilehoria eta bestea beltzarana, Extremadura edo Kanarietako azentua zutenak eta pistolekin armatuta”.

BORTXAKETA-SAIAKERA

Igande bereko goizaldean ere, Trintxerpen, itsasargiaren inguruan, erasotzaile berberak bi emakume gazte bortxatzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu. Neska haiek komisarian egin zituzten adierazpenak bat datoz: erasotzaileek erabili zuten autoa Seat 128 gorria zen, bi atekoa; eta pistola batekin apuntatu zieten, NANA eskatu ondoren. Beste behin ere, gauza bera.

El Diario Vasco-ren aburuz, gertaera horiek “haserre oldea eragin dute Erreterian eta inguruko herrietan, eta haserrearekin batera, kezka handia sortu dute; izan ere, era horretako sexu-erasoak –su-armen mehatxupear egingakoak– bi aldiz gertatu dira lehenago, azken hilabeteetan”.

BESTE HAINBAT SAIAKERA, JARRAIPEN ETA MEHATXU

Urtarrilaren 14a. Manifestazioa Donostian.

Urtarrilaren 14a. Osoko Bilkura Erreteriarako Udalean. Gipuzkoako **gobernadore zibilarren dimisioa eskatzea** erabaki zen eta halaber, eskatu zen, Polizia Nazionalaren ordeztu, Udaltzaingoa egotea herria egunez eta gauez zaintzen, eta horren aurrekontua Barne Ministerioaren kontura izatea. Inguru horretan greba bat egiteko aukeraz mintzatzen hasi ziren.

Urtarrilaren 14a. Herri batzarra Erreterian. *La Voz de España* egunkariak, hilaren 15ean, biktima batzuen senitartekoen zenbait hitz jaso zituen, barne zela “publikoan zegoen emakume” baten lekukotasuna ere. Emakume hark hitza hartu zuen jakinarazteko “etxean telefono-mehatxuak jasotzen zituela, eta mehatxu horiek 10 urteko alaba ‘edozein egunetan’ bortxatuko zutela iragartzen zutela”. Malkoak begietan zituela, emakume horrek esan zuen **mehatxu horien egileek beren deietan deskribatzen zituztela haren alabak egun horietan eramaten zituen soinekoak**, eta argi eta garbi erakusten zuten haurra zelatatzen ari zirela. Gai horretan sakonduz, beste pertsona batzuek

egun horietan bertan gertatutako beste hainbat bortxaketa-ahaleginen berri eman zuten”.

“Nik beldurra gogoratzen dut (...) Eta orduan, zera zen, izua zen! Hau da, ama ez zen ausartzen, ez gintuen uzten ezta ogia hartzera jaisten ere. Baina tira, jaitsi egiten ginen, guztiak elkarri itsatsirik joaten ginen, ezta? (...) Psikosi handia zegoen. Ostia! Ez, ez zenekien non aterako zitzaizkizun. Izan ere..., ez baitzenuen ezer egiterik (...) pipekin joaten baitziren, ulertzen duzu? Alegia, zera zirela, horixe zirela. **Guztiok bagenekien zer ziren**. Orduan orain baino askoz ere argiago”³⁷.

Urtarrilaren 15a. 1.500 lagun inguru manifestatu ziren, gehienak emakumeak, Trintxerpeko azoka txikitik, Poblidotik barna, Pasai San Pedroraino eta atzera itzultzea. Pankarta handi bat zen manifestazio-buruan: “Bortxaketei ez. Bortxatzaile horiek, zure [zuen] indarkeria inpotentzia da”; hala islatu zuen *Unidad* arratsaldeko egunkariak. Oihukatu ziren kontsignetako batzuk ziren, esaterako, “Zuek, faxistak, zarete terroristak” edo “Arra, zure indarra zure inpotentzia da”.

Hasieran talde politiko jakin batzuek, Erretereriako Batzarrak eta manifestazioetako zenbait esloganek esaten zituzten gauzak baziren ere (*La Voz de España*n hilaren 15ean jasotako eslogana: “Polizia faxistak Erretererian bortxatzaileak”), komunikabideetan ere gero eta gehiagotan agertzen zen gertaera horien berezitasuna (“ez dira bortxaketa arruntak”), eta halakoak egiten zituztenen zigorgabetasunari buruz idazten zuten. Ikus dezagun:

Urtarrilaren 16a. *El Diario Vasco* egunkariko lerroburua: “**Erretereriakoak ez dira bortxaketa arruntak**”. Eta testuan: “Eraso horiek armak erabiliz eta bortxaketa batetik bestera, batez beste, ordubeteko aldea izateak **susmoa**

³⁷ Eli Etxabegurenek Iratiri (Erretereriako militante feminista) 2017ko ekainaren 28an egindako elkarrizketaren laburpena. Jasoa dago Memoria, emozioak eta subjektibotasuna: trantsizio garaiko aktibismo feministaren analisisa, Erretereriako Emakumeen Taldearen bitartez (1975-1980) izeneko txostenean. Op. cit., 63-64. or.

piztu du, alegia, bortxaketa horietan ez direla ikusten gertaera kriminal horretan izaten diren baldintza psikologikoak”.

Gerardo Sainz Cuesta psikologo sexoterapeutari ere egin zioten elkarrizketa, eta hona zer esan zuen:

“Bortxaketa da emakumeari umiliaziorik handiena jasanaraztea. Bortxaketan, bere gorputzaren gaineko eskubidea ere galtzen du. Kasu honetan inpunitatez jokutzen da, arma eskuan, aurpegia agerian. Autoreak ez dira ohiko tipologiakoak. **Haien jokabideak erakusten du inork ezagutzeko beldurrik batere ez dutela.** Egun batean bi aldiz gertatu da, eta horrek erakusten du **ez dela bere burua ase nahi duen bortxatzaile bat.** Euskal Herrian gertatzen ari diren bortxaketen helburua, dirudienez, ez da bortxaketa bortxatzeagatik egiten duen pertsonaren helburu bera. **Atzean zerbait gehiago dago”.**

Donostiako Batzarreko emakume batzuek “sakoneko auzia” azpimarratzen zuten, “Bortxaketak beti izan dira, baina ez dira kalera atera”. Hala ere, honako hau iradokitzen zuten: “...arestian esandakoak **ez du ukatzen gertakari horien atzean egotea Errenteriako herriaren aurkako zigor politikoa**” (*El Diario Vasco*).

Urtarrilaren 16a. Eskualdeko hainbat sektore eta herritako batzarrek bat egin zuten hilaren 17rako **greba orokorra** deitzeko: “Bortxaketa gehiagorik ez”; “Era-sorik ez, erantzunik gabe”; “Bortxaketaren aurka, mobilizazioa”; “Gobernadore, eman dimisioa” (EPK ez zetorren bat azken horrekin). Deialdiaren sustatzaileak honako hauek ziren: Emakumeen Taldea, CCOOko Emakumeen Idazkaritza, KAS Emakumeak, Errenteriako Agustinak, Galtzaraborda, Kaputxinoak, Alaberga eta Gaztaino auzoetako auzo elkarteak, Zamalbideko eta Errenteriako Institutuko ikasleen batzarrak, Herrera-Oiartzungo Enpresa Batzordeen Koordinadora, sindikatuak, alderdiak, gazte erakundeak... eta guzti horiei batu zitzaizkien Errenteriako Udala ere. Iriarteren ustez, greba orokor hori “Europa osoan parekorik ez duen aurrekaria da”³⁸.

³⁸ Iriarte eta Elberdin. Op. cit., 125. or.

Urtarrilaren 16a. Ibilaldia Pasai Donibanetik Errenteriara: “oroitzen den manifestazio handienetako bat” (*El Diario Vasco*), emakume gazteen bortxaketen aurkako protestan; horri gehitu behar zaio hilaren 15ean, gaueko 12:00etan, Carlos Saldise Lezoko Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kidea hil zutela, 33 urte zituela, Espainiako Talde Armatuak (GAE) beren gain hartutako atentatua. Manifestazioa Pasai Donibanetik atera, Lezoko jendea elkartu eta Errenteriako Zumardian amaitu zen.

Urtarrilaren 16a. Eibarko Emakumeen Asanbladak bortxaketen aurka deitutako manifestazioan 1.500 lagun elkartu ziren.

GAE TALDEEN ERREBINDIKAZIOA

Urtarrilaren 16a. *La Voz de España* egunkariko aurretitulua: “GAEek LA VOZ-era deitu, eta beren gain hartu zituzten” azken bortxaketa-kasuak”.

Testua: “**Ahots anonimo batek atzo arratsaldean GAEentzat (Espainiako Talde Armatuak) erreibindikatu zituen Erreterian azkenaldian egindako bortxaketak.** Erreibindikazioa telefonoz helarazi zitzaion LA VOZi, eta, dirudienez, mezua aldeztu aurretik grabatuta zegoen. Ahots lodia duen gizon bat da mezuaren egilea”.

Urtarrilaren 17a. *Egin*-en, lehen orrialdean: “GAE eta BVE taldeek azken asteetako bortxaketak erreibindikatu dituzte”. GAEek Lezoko Carlos Saldiseren hilketa hartu zuten beren gain, *El Diario Vasco*-n, eta *Egin*-en, berriz, telefono-dei bat jaso zuten, atentatu hori bera BVEk (Comando Luis Uriarte³⁹) egindakoa zela esanez. Berrito ere, sigla desberdinek egindako erreibindikazioak.

³⁹ Luis Maria Uriarte Alza Bediako alkate ohia eta Bizkaiko diputatu ohia zen, eta ETAm-ren atentatua jasan zuen, Lemoan, 1979ko irailaren 29an. Urriaren 5ean hil zen, atentatua eragin zizkieten zauri larrien ondorioz. 56 urte zituen eta hiru seme-alabaren aita zen.

Ere⁴⁰ astekarian, “egonkortasunik eza eragiteko modalitate berri bati” buruz idatzi zuten:

“Carlos Saldise, Amnistiaren Aldeko Batzordeetakoa, GAEEK Lezon hil izana da sekuentziaren amaiera; behatzaile politiko askoren iritziz, **maniobra ezegonkortzailea** besterik ez da, azken egunotan **modalitate berri bat** hartu duena: **pistolaz mehatxatuta egindako bortxaketak**, hain zuzen ere Euskadiko eskualde borrokalarientako batean, **Erreterian**”⁴¹.

Urtarrilaren 17a. “Erabateko lanuztea” jarri zuten izenburutzat, bai *Unidad* egunkariak, baita, biharamunean, *La Voz de España* egunkariak ere. Bortxaketan aurkako lanuztea orokorra izan zen Erretereria-Lezo-Oiartzun-Pasaia eskualdean, Gipuzkoako Emakume Taldeek deituta eta Erretereriako Batzarrean berretsita. Gainera, Lezon Carlos Saldise hil izanaren aurkako protesta ere gehitu zitzaion deialdi hari. Hainbat kamioi eta autobusek Erretereriako sarbidea itxi zuten. Bilbon talde feministak bildu ziren *Tele Norte*-ren aurrean.

“Emakume horiek greba konbokatuta egin zuten indar-erakustaldia eztabaida ezina da. Ez zen ohiko gauza, ez zegoen aurrekaririk, baina herritar guztiak elkartzea lortu zuten, inguruko emakumeek oso modu berezian bizi zuten errealitate gordinari erantzuteko”⁴².

⁴⁰ ERE astekaria 1979 eta 1981 artean argitaratu zen; haren plantillaren zati bat Egin-etik, 1978ko norabide-aldaketaren ondoren, alde egin zuten kazetariak ziren, tartean ondoren El País-era sartuko ziren batzuk: Genoveva Gastaminza, Luis R. Aizpeolea... Haren azken zenbakia 1981eko ekainaren 9an atera zen argitara, zailtasun ekonomikoek aurre egin ezin izan zirelako.

⁴¹ ERE 1980/01/24-31, 9. or.

⁴² Etxabeguren, Eli. Op. cit., 65. or.

Urtarrilaren 17a eta 18a. Gipuzkoako Gobernu Zibilaren ohar bat argitaratu zen, **“Polizia espezializatuak bortxaketen kasuak ikertuko dituzte”** esanez. Gainera, ohararazi zuen: “Bortxaketen aurkako protesta-manifestazioen batean, Estatuko segurtasun-indarraren ekintzekin erlazionatzeko ahaleginak egin dira – oinarri txikienik ere gabe– (...); legearen pisu guztiarekin ekingo diogu difamatzailen aurka. Gainera, ohar honetan aipatzen diren delituzko egintzak Zigor Kodean jasota daude, eta ez zaie eman behar bestelako garrantzirik, **inongo indarkeria politiko-sozialik gabeko delitutzat** hartu behar dira” (*Unidad*).

Urtarrilaren 18a. *La Voz de España*ren lerroburua: “GAE erreibindikazioak ugaritzearen aurka”. “Grupos Armados Españoles taldeek gaitzetsi egiten dute izen horrekin edo beste batzuekin egindako atentatuen erreibindikazioak ugaritzea, *La Voz*-i bidalitako ohar batean. GAEk adierazten dute aurrerantzean egunkari horretan bakarrik erreibindikatu dituztela beraien parte-hartzearekin egindako ekintzak, gaizki-ulertuak saihesteko”.



El Diario Vasco, 1980ko urtarrilaren 18a.

ZAZPIGARREN BORTXAKETA

Urtarrilaren 21a. 21:00ak aldera, 18 urteko neska bat bahitu zuten Galdakaoko J.S. Elkano zeharbidean. Bi gizonek auto batean sarrarazi zuten, Elejalde kirol-gunera eraman, herriaren kanpoaldean, eta han bortxatu egin zuten. Ez dirudi armarik zeramatenik, edo behintzat ez zituzten erakutsi. Ingurua ezagutzen zuten, edo aldez aurretik planifikatu zuten, biktimak esan zuenez. Hala jaso zen komunikabideetan.

Osasun-zentro batean artatu zutenean, bi funtzionario mesfidati ageri ziren bortxaketa izan zela onartzeko orduan, biktimak ez baitzuen ageriko indarkeria-zantzurik.

Horrek, beste behin ere, zalantza eragin zuen, baina Galdakaoko Udalak, Gurasoen Elkartek, Santimamiñeko Emakumeen Batzordeak eta alderdi eta sindikatuek, guztiek batera, komunikatu bat sinatu zuten gertaera horiek salatzeke eta biktimari elkartasuna helarazteke.

Kasu honetan ez dago argi, edo guk ez dugu jakin, ez errebindikazio, ez mehatxurik izan zenik, ez eta sexu-erasoaren egileek armarik erabili zutenik ere. Kasu honetan ere bahiketa dago eta autoa erabiltzen da bortxaketa delitua egiteko, eta erasotzaileen kopurua ere berdina da.

BORTXAKETA-AHALEGINA

Urtarrilaren 21a. Irunen izandako beste eraso batean, labanez armatutako bi gizonen 14 eta 16 urteko bi emakume gazte bortxatzeko ahalegina egin zuten, 21:30ak aldera. Neska gazteek bi indibiduoak deskribatu zituzten: batek ile kizkurra eta bibotea zituen, trajez jantzita zihoan; bestea ilehoria zen eta galtza bakeroak zeramatzen. Gertaerak herri horretako Lapitz pasabidean hasi ziren; bi neskak Simca 1.200 hori metalizatu batean sartzera behartu zituzten. Madrilgo matrikula zuen eta azken bi zifrak 02-J ziren. Barruan tratatu txarrak eman zizkieten, baina neskek ihes egitea lortu zuten, autoa martxan zela.

Urtarrilaren 21a. El Diario Vasco-k telefono-dei bat jaso zuen; GAEek esan zuten **ez zirela ez ordena publikoko indarretakoak, ez eta "polizia paraleloak" ere.** Berretsi zuten "Espainiako batasunaren alde borrokatzen garela". Ez zuten ukatu bortxatzaileak izatearen akusazioa.

Fdo. GRUPO DE MUJERES DE RENTERIA

El día 2 de Enero de 1978 a las 5:30 de la mañana en el Barrio de Galzaraborda, cuando se dirigía a trabajar una mujer fue agredida por dos individuos que la amenazaron con un cuchillo, la introdujeron en un coche y la llevaron a la campaña de Pekin, donde la violaron.

Casos semejantes se han dado en los últimos días también en Vizcaya y Pamplona.

Ante estos hechos, nosotras como mujeres que estamos siendo agredidas, sin que nadie se ocupe de poner remedio efectivo a este problema, hacemos las siguientes consideraciones:

- Exigimos a la Legislación y la Justicia tome en serio estos hechos y los castigue como se merece, de lo contrario nos veremos obligadas a hacer justicia por nuestra cuenta.
- Exigimos a nuestros maridos, hermanos, padres, amigos etc., que como hombres nos consideren personas humanas y no objetos a utilizar, de otra forma están ayudando a que repitan estos hechos.
- Una vez más queda patente el hecho de que además de sufrir toda la problemática como mujeres trabajadoras, se une a ella la constatación de ser utilizadas, agredidas y violadas por nuestros propios compañeros.
- Exigimos que las cosas se pongan en su lugar y quien cometa estos actos sea sancionado por la Ley y por la Sociedad, ya que en la actualidad ocurre lo contrario, que es la víctima quien recibe sanción social.

Este escrito y otros actos que se van a celebrar no han de ser una bengala que se lanza en la noche sino que hemos de proponernos el realizar un trabajo continuo encaminado a mentalizarnos todos (madres, padres, hijos, amigos, et.). No podemos estar como mujeres expuestas a la agresión de cualquiera.

Llamamos a las mujeres, a los partidos políticos, organizaciones sindicales y al pueblo en general, a que participe en la manifestación que ante estos hechos se realizará en Rentería el viernes día 13 a las 7 1/2 de la tarde.

el domingo 22 a las 12^a/₂ de la mañana

Errenterriako
Emakume
Taldearen agiria.
Iturria:
Memorandria.

Urtarrilaren 22a. Bilboko Alde Zaharrean Ana Ereñoren etxea asaltatu zuten; Bizkaiko Emakumeen Asanblada feministakoa zen, eta Ana Tere Barruetaren bortxaketa ikertzeko batzordeko kidea. Ez zegoen sarraila behar-tuta zegoenik adierazten zuen seinalerik. Ana Ereñok “Ana Tere, ni una violación sin respuesta” izeneko artikulua idatzi zuen *Punto y Hora* aldizka-rian⁴³. “Inkontrolatuek” gelak miatu zituzten, etxea hankaz gora jarri zuten, ohe bat apurtu eta horman margotu zuten: “Marxista. Cerda. Te vamos a vi-olar. FN”. Sigla horiek eskuin muturreko Fuerza Nueva erakundekoak izan zitezkeen. Erasotzaileak gutxienez bi ziren, mahai gainean bi patxaran kopa utzi baitzituzten bukatu gabe. Berriro ere, nabarmena da delitua egin bitartean zein lasai ibili ziren, agian Ana Ereñoren ordutegiak ezagutuko zi-tuzten-eta.

[Baina ez da kasu bakarra. **Martxoaren 1ean**, Deustuko San Adrian Batxilergoko Institutuko ikasle bati zenbait pertsonak kalean heldu, eta buruan indarrez kolpatu zuten (bost jostura-puntu jaso zituen Sorostetxean), Ana Tere Barruetaren bortxaketa eta heriotza salatzeke greban parte hartu izana leporatuz. Lau erasotzaile izan ziren].

Urtarrilaren 24a. Batzar irekia Deustuko Hezkuntza Zientzien Institutuan, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak deituta.

Urtarrilaren 24a. Batzarra Irungo San Juan plazan, Pio Baroja Institutuko kideek deituta, han ari baitzen ikasten Irunen hilaren 21ean erasoia jasan zuen biktimetako bat.

Urtarrilaren 26a. Errenteriako Emakumeen Asanbladak herriko eta beste herri batzuetako emakumeak elkartzera deitu zituen, herriko plazan, gaueko 22:00etan, herriko **kaleez jabetzeko modu sinbolikoan**, eta “emakumeek kalean nahi bezala eta nahi dutenean, beraiek bakarrik ibiltzeko eskubidea” aldarrikatzeko.

⁴³ Punto y Hora 1980ko azaroaren 17tik 24ra

“Garai hartan ohikoa ez zen deialdi batek ehunka emakume aterarazi zituen kalera, ospakizuna eta borroka bat eginda (...) Larunbat gaua zen, eta zuziak generamatzan. Nik gogoan dut gitarra neramala, kantatzen ari ginela, errebindikatzen ari ginen, gogoak ematen ziguna egiten genuen, eta emakume asko zeuden, asko, izan ere, gure asmoa zen manifestazioa emakumeena bakarrik izatea”⁴⁴.

Donostiako Emakumeen Asanbladak Erreneriako ekintzak babestea erabaki zuen, eta “gauean kaleez jabetzeko, pentsatu zuten han agertzea eskusoinua, espraiak, argizariak, brotxak, makilak, zintak, linternak eta abar hartuta”⁴⁵. Bost egun geroago, urtarrilaren 31n, Donostiako hirurogei emakume bildu ziren CATen, eta Errenerian “kaleaz jabetze” horren emaitza aztertuta, hauxe dio aktak: “(...) oso inpresio ona; zortziehun edo mila emakume inguru bildu ginen, eta indar itxura eman genuen”⁴⁶.

Otsaila. Erreneriako Emakumeen Taldeak Garrasi izeneko aldizkaria argitaratu zuen. Aldizkariak ordura arte gertatutako bortxaketen eta bahiketen berri ematen zuen. Baina...

“...informazio-aldizkari soila izatetik harago, askoz ere tresna ahaltsuagoa zen, balio izan baitzuen herritarrentzat onartzen zaila zen diskurtso bat zabaltzeko: bortxaketa haien dimentsioa. **Diskurtso sortzailea** izan zen hura, garai hartako euskal gizartearentzat. **Errepresio-indarkeria arruntari esanahi berria ematea lortu zuten, eta indarkeria matxistak berezkoa zuena erakustea**, eta horretarako, 1977an Leioako Jardunaldietan landutako argudioak baliatu zituzten”⁴⁷.

⁴⁴ Eli Etxabeguren Ainarari egindako elkarrizketa, 2007ko ekainaren 26an, op. cit., 67. or.

⁴⁵ DÍEZ MINTEGUI, Carmen, GARMENDIA ETCHENIQUE, Miren eta GOROSPE PASCUAL, Begoña. Op. cit., 66. or.

⁴⁶ Ibidem, 67. or..

⁴⁷ ETXABEGUREN, Eli. Op. cit., 66-67. or.



Garrasi

ERRENTERIKO EMAKUME
TALDEAREN AGIRIA

Impreso en ARDATZA S.A.
Polígono ECIAGO 10-B
Hernani-Guipúzcoa
D.L. SS-56-80

Otsaila 80

Bortxaketa

Emakume patriarkal gizarte honetan izaki biolatu, bortu bat da. Gizartearen gailentzen diren baloreak, munduak isteko eta gizonen da, gizonak ezertara da eta patriarkal iturran gizonen baloreak bakarrik kontutan hartzen dira; ikume kondizioa ukatua da.

Bortxaketa zigortuz gure honestitate gorderen eta zain omen dutela DIOTE.

Guk libertatearen aurkako delitua dela diogu gure integritate sikiologiko eta fisiko eta gure gorputzen jabetza ukatzen dela.

Indarkeriak, esku sartzeak, sarketa eta maltzurkariak nahi berridun bat dute. Emakumearen gorputza bere gogoa, kontre hartu eta erabiltzea. Bortxaketa gure gaitate errotuaren ondorioa dela, gizarteak gaitate dela eta ezin dela lezari, ezin dela ihes egin eta gaitatearen gizaik gaixokak dira lan honetan dabilizanak. DIOTE.

Guk biolatu edo bortxaketak ez direla nahi eta nahiezko errepresio arabera gartzen diogu, zeren sexu arazoak gure gaitate errepresioaren eta ez dugula inor bortxatzen, gaitatearen zerbait inoer aurrepentsaturik daudela: prostitua, pornografia. Bortxaketa gorroto biziko akintza, ritzela eta gudetan gehien ematen den zapaltze, posesio erotik barrena.

Sexu harremanak indar erlatiboak erpresatuko ez balituzke, emakumearen gorputza hartu eta utzi egiten den gauza bat balitz, bortxaketa ez luke existituko. Dominatu behar, posesio beharrezko izate horren konsekuo gure existentzia segurtate balbula da. Gizon zapaldu bakotzak ba du ibait zapaltzeko. Honela bortxatzaileak ez dira bakarrik kaptist sistemaren biktinak, baita bere kondizeak ere. Gauzak kalean bakarrik ibiltz gero bakarrik bortxa omen zaitzela DIOTE.

Biktorearen obligazioekin emakumeak beti antzarraren sexu jak bete behar dituela. Argi dago gizonak edozein Konditan emakumearen gorputza bere gusto eta antzura erabiltzen duela eta eskubide hau beste gizon bat tartean sartzen izan bakarrik ukatzen zaitela. Gizon batzara ez den emakumea, gizon gutxiak emakumea dela GUK DIOGU. Ba dira ite bikote bixiak idazkaria eta arduraduna edo nagusia, idazkaria eta enfermera, lanbidea eta enkaratuia, nekakumea...



Impunes ¿hasta cuándo?

El miércoles 12 de noviembre, hacia las nueve de la noche, a la altura del Versalles, una pareja de jóvenes de ambos sexos fueron asaltados por dos individuos que, a punta de pistola, les pidieron la documentación.

Tras cachearlos a ambos, manos en alto, obligaron al joven a retirarse a cierta distancia bajo la amenaza de la pistola, y se llevaron a la muchacha (16 años) hacia los muelles de Lezo. Allí la ataron, la interrogaron sobre su intención política y la de su familia, y fi-

Extraordinario donde el Ayuntamiento se posicionase y estudiase la respuesta a dar. En este Pleno se tomó la decisión de mantener una entrevista con el gobernador civil. A dicha entrevista, cuyo resumen se publica en otro apartado de este periódico, acudieron representaciones de familiares, del Grupo de Mujeres y del Ayuntamiento.

Convocamos también a Partidos y organismos populares a apoyar nuestra lucha no sólo a nivel de comunicados, sino de participación real.

También esta vez la respuesta popular fue masiva. Mayor al...

Emakumeen Taldeak zera adierazi zuen Garrasi aldizkarian: “Lehen aldiz geuk, emakumeok, zuzendu eta antolatu ditugu borroka horiek. Bada garaia emakumeak kalera atera gaitezen gure eskubideen alde borrokatzeko, eta parte hartzeko “bizitza publikoa” oraintxe arte izan den horretan guztian, gizonena ez beste inorena zen eremu horretan. Herri Batzarrak eta manifestazioak emakumeek zuzendu dituzte, eta hori jada urrats garrantzitsua da Mugimendu Feministak kalean duen presentzia gero eta aktiboagoan. Bide bati ekin diogu, emakumeak mugimendu bat osatzen ari gara, gure askapen-erantz, eta ez dago hori gelditzerik”.

Errenteriako Emakume Taldearen agiria, 1980ko otsaila. Iturria: Memorandua.

ZORTZIGARREN BORTXAKETA

Apirilaren 13a. Bermeoko 17 urteko bi neska auto-stop egiten ari zirela hartu zituzten, Mundakan, 22:15ak aldera, herrira bueltan zihoazela. Gidaria “Kimikako irakasle” gisa aurkeztu zen. Bermeora iritsita, esan zien oraindik goiz zela, eta Bakiora joateko berarekin, kopa bat hartzera. Bi neskek ez zuten nahi, eta autotik irteten saiatu ziren, baina gidariak azeleratu zuen, Matxitxakoko Talaiara joan eta aparkatu egin zuen. Argiak itzali zituen eta, mehatxupear, bi gazteetako bat bortxatu zuen, bestea pistolarekin mehatxatzen zuen bitartean, honako hau esanez: “balak arin-arin ateratzen dira hemendik”.

Bortxatzailea patxada osoz aritu zen, ez zen urduritzen. Egoera menderatzen zuen eta, amaitutakoan, Bermeora eraman zituen berriro. Hain sentitzen zen zigorgabe, neskak herrian utzi ondoren, Guardia Zibilaren kuartelaren ondoan aparkatu zuen autoa. Hurrengo egunean, biktima amarekin salaketa jartzera joan zenean, han ustekabea! Guardia Zibilaren Parkean, gazteak autoa ezagutu zuen eta hala adierazi zion harrera egin zien Guardia Zibileko arduradunari. Bortxatzailea, beraz, ez zen “irakaslea”, 24 urteko Guardia Zibileko agente bat baizik, P.G.L.; hasiera batean bortxaketaren egile izatea ukatu zuen, baina frogak nabariak ziren.

Apirilaren 16a. Bermeoko Udalak, osoko bilkuran, aho batez erabaki zuen horrelako bortxaketak, herritarren ordezkarien iritziz, “beldur terrorista eragiteko arma parapoliziala” zirela.

Bortxaketa salatzeke egun horretan bertan herrian egindako manifestazioan, 5.000 lagunek hartu zuten parte. Guardia Zibilak manifestazioaren aurka ekin zion. Egun horretan bertan, agentea Bermeoko jatetxe batean bazkaltzen ikusi zuten.

Apirilaren 25a. Guardia zibila Gernikako Instrukzio Epaitegian deklaratzera deitu zuten, baina ez zen agertu. Guztiarekin ere, haren arduradunek ez zioten arauzko arma kendu eta baimena eman zioten jaioterrira, Guadalcanalera (Sevilla), joateko.

Maiatzaren 6a. Guardia zibila, P.G.L. eta haren neska-laguna beren buruaz beste eginda agertu ziren, Guadalcanalen (Sevilla), auto barruan, autoaren gasak arnastuta.

BEDERATZIGARREN BORTXAKETA, ETA BESTE BI BIKTIMA

Maiatzaren 7a. Maria Jose Bravo del Valle, Administrazioko ikaslea Nazareten (Donostia), 16 urtekoa, eta haren mutil-laguna, Francisco Javier Rueda Alonso, 16 urtekoa hura ere, Donostiako Loiola auzoko aparteko bazter batean zeuden eserita, Mendigain bidean, Miserikordiatik gertu eta kuartel militarren parean (ibaiaren beste aldean dago). 18:00etan ikusi zituen azken aldiz lekuko batek. Halako batean, mutila buruan jo zuten objektu batez, beisbol-bate edo antzeko batez, eta konortea galdu baino lehen, neska-lagunaren oihuak entzun zituen.

Mutila 19:20 inguruan aurkitu zuten, noraezean zebilela, odoletan. Francisco Javier larri eraman zuten ospitalera: garezurra hautsia eta eskuineko parietala hondoratuta, zauri irekia bekokian, hematoma begi batean eta urratu handiak bizkarrean eta gorputz-adarretan.

Baina Maria Jose Bravo ez zen agertu, bahituta zegoen. Covitek argi esan zuen: “Maria Jose bahitu eta hil egin zuten” (*Izuaeren mapa*). Bien familiak eta lagunak bila aritu ziren inguruko bazterrak miatzen, goizeko laurak arte, baina ez zuten aurkitu.

Maiatzaren 8a. Berrito goizetik neska aurkitzeko ahaleginean aritu ziren, baina goizean ez zuten aurkitu. Bazkaldu ondoren, neska gaztea oraindik agertu gabe zegoela, telefonoz deitu zuten Loiola auzoko familia-etxera, eta emakume ahots batek amari esan zion alaba zela: “Hola mamá. ¿No me conoces?”; Mari Josereren amak, aztoratuta, telefonoa senarrari pasa zion, eta deitu zuenak esan zion: “Soy tu hija, papi. Estoy en Amara, en la Plaza de las Armerías”, eta moztu egin zuen.

“16:00ak aldera”, autopsiaren arabera, eta “18:00ak aldera”, komunikabide batzuen arabera, Poliziako kide batzuek Mari Joseren hilotza aurkitu zuten sasi artean, Zorroaga gaineko mendi-hegal batean. Familiako kideek esan zuten leku hori lehendik miatuta zegoela. Gaztearen erlojua aurreko eguneko 18:30etan gelditu zen. Marijosek kolpe handiak zituen buruan, eta bortxaketa eta tratu txarrak jaso izanaren zantzuak, baita urratuak ere, aurkitu zuten lekura arrastaka eramán zutelako.

Mutila, bitartean, Arantzazu Ospitaleko Zainketa Intentsiboko Unitatean zegoen.

20:00etan batzarra egin zen auzoan, eta 21:00etan manifestazio bat atera zen Donostiako Bulebarretik: “De día uniformados, de noche incontrolados”, “Fuerza Nueva asesina”, “Contra los violadores, juicios feministas”.

Kontsignak gogorragoak dira, ikus daitekeenez.

Donostiako Emakumeen Asanbladak kondena idazki bat prestatu zuen. Mari Joseren lankideek ere gauza bera egin zuten Nazaret zentroan, beste hainbat erakunderekin batera.

Maiatzaren 9a. Autopsian hauxe irakur daiteke: “biktimari bortizki eraso zioten objektu sendoren batekin, eta heriotza ekarri zioten zauriak eragin zizkioten. Gainera, gorpuk lizunkeriazko abusua jasan izanaren seinale argiak ageri ditu”.

Bi gazteen aurka atentatu zutenek ez zuten lapurretarik egin nahi. Ez ziren diru bila zebiltzan gaizkile arruntak. Mari Josek, autopsian jasotakoaren arabera, “lau eraztun zituen, eta kate bat bere dominarekin, baita eskumuturreko erloju bat ere, sei eta erdietan geldituta zegoena, eta dirua ere bai”. Ez zioten ezer kendu.

Maiatzaren 9a. Loiola auzoan dendak eta tailerrak itxi zituzten, batzarrean greba egitea adostu ondoren. “Loiola auzoa, geldituta” izan zen *El País*-en izenburua. Hainbat manifestazio eta geldialdi Erreterian, Eibarren, Hernanin,

ULERTZEA, BIZITZAREN BILA

Bilbon... egin ziren, Madrilen izandako beste eraso faxista batzuk (Arturo Pajueloren heriotza...) eta Mari Jose Bravo del Valleren bortxaketa eta heriotza salatzen. Aipagarria da 2.000 lagun elkartu zituen manifestazioa (Egin-ek parte-hartze handia azpimarratu zuen; “manifestazio masiboa”, izan zen *El Diario Vasco*-ren leiroburua), Bulebarretik aterata, eta Loiolan neskaren hiletara joan ziren beste hainbeste lagunekin elkartu zen. Loiolako eliza mukuru beteta zegoen, eta jende askok kanpotik jarraitu zuen erlijio-ekitaldia.

Bi manifestazioek bat egin zuten eta auzoari hainbat itzuli egin zizkieten, polizia ugariren artetik pasatuz, eta ikurrina bat eta lore batzuk jarri zituzten Mari Jose hilda agertu zen tokian.

Auzora itzultzean, poliziek aginduak jaso zituzten eta poliziaren lehen eraso gertatu zen. Jendea berriro bildu ondoren, berriro ere eraso zioten poliziek, ke-poteekin eta gomazko pilotekin. Balkoietara eta leihoetara ere ke-poteak bota zituzten, eta Mari Jose Bravoren familiaren etxean ere sartu zen kea. Pertsona batek, Francisco Agirre Zugastik, gomazko pilotakada jaso zuen buruan.



Lehenengo pankarta Emakumeen Asanbladarena zen, esaldi honekin: “Mari Jose gogoan zaitugu”. Loiolako Ikerketa Batzordea, 1980ko maiatzaren 12a.

Egunkariek jaso zituzten kontsignak hauek dira: “Policía, Cristo Rey”, “Contra los violadores, juicios feministas”, “Fuerza Nueva es la Policía”, “Fascistas, policías, violáis todos los días”...

Maiatzaren 9a

Donostiako Emakumeen Asanbladak bere jarrera plazaratu zuen:

“Beste behin ere, faxistek bortxaketa (hilketarekin batera) erabili dute, larritasun bikoitzarekin, eta horrek erreakzionatzeko eskatzen digu, sendo gaitzetsiz gertatutakoa eta jarrera aktiboa erakutsiz”.

“Larritasun bikoitza: batetik, emakumeen aurkako gorrotoa ikaragarrizko gordinkeriaz erakustea, horientzat abusu matxistarako sortutako izakiak besterik ez garelako, hainbeste eta hainbeste bortxatzaileentzat; eta bestetik, gorroto faxistaren gailurra da: herria, higuigarri horiek bortxatzen dituzten herriko emakumeengan haragituta. (...)”.

Maiatzaren 10a.

Alde batetik, *El Diario Vasco*-k azpimarratzen zuen poliziak behin eta berriz esaten zuela “ia segurtasun osoz baztertu behar dela motibazio politikoa”, eta beraz, haren ustez aintzat hartzekoa zen sexu-delituaren edo mendeku pertsonalaren hipotesia. Horri dagokionez, Donostiako Poliziaren Komisariatik jakinarazi zuten **aztarna bat zegoela** “errudunak identifikatzeko bidea eskaini zezakeena”, eta **kasua lehenbailehen argitu nahi zutela**. Erakunde ofizial bakar bat ere ez zen familiarekin harremanetan jarri dolumina helarazteko eta irekitako ikerketen berri emateko. Hori ikusita, une batean, familiak Gobernu Zibilerara jo zuen, ikerketa horien berri jakin nahian. Pedro Manuel Aristegui gobernadore zibilak hartu zituen, eta esan zien itxura guztien arabera **delinkuentzia-kasu arrunta zela**. Unea aprobetxatu zuen esateko Marijosek jantzita zeraman arropa Gobernu Zibiletik desagertu zela; hau da, instrukzioaren froga “garrantzitsu” batzuk desagertu ziren. Hurrengo egunetan ere inork ez zien ezer jakinarazi.

Bestetik: Batallón Vasco Español (BVE) taldeak bikotearen aurkako atentatua errebindikatu zuen *Egin*-era egindako deian: “Hil egin dugu [Mari Jose] **ETAren konfidentea** zelako [gezur hori bera erabili zuen BVEk Yolanda Gonzalez Martin bizkaitar gaztearen hilketara justifikatzeko, otsailean, Madrilen]. Hondarribiko autobusean gertatutakoagatik⁴⁸ **bi euskal neska hilko ditugu**. BVEko⁴⁹ Berasategui komandoa”⁵⁰.

Goizalde horretan bertan, erasotzaileek *Egin*-era deitu zuten, Francisco Javier Rueda mutil-laguna hiltzeko mehatxua eginez, “ahoa ixten ez bazuen”. Lehenago Donostiako “Erresidentzia”ra deitu zuten, eta gero Ospitalera, zauritutako gazteari buruz galdetuz (bi erakundeek baieztatu dituzte deiak). Esan nahi zioten –hilaren 11ko *Egin*-en irakurri zen– “ahoa itxi eta ez dezala ezer esan ikusitakoari buruz”, bestela, hurrengoan “tiro egingo diogu buruan”. Eta hau gehitu zuten: “Maria Joseri gertatu zaiona **euskal emakume guztiei gertatuko zaie**”.

Halaber, egun horretan bertan, –hilak 10–, arratsaldeko 18:00etan, emakume batek Francisco Javier Ruedaren gurasoen etxera deitu zuen. Letra batez eta zenbaki batez identifikatu zen, eta abisatu zuen “asteburu honetan mutila edo familiako kideren bat hilko dugu”. Hori entzunda, Francisco Javierren senideek eta lagunek zaintza-taldeak antolatu zituzten ospitalearen inguruan, hura babesteko.

⁴⁸ Horrekin aipatu nahi zuten apirilaren 28an Irun-Donostia lineako autobusean izandako tiroketa. Hartan, Francisco Javier Arantzeta Egizabal ETako kideak Rufino Muñoz Alcalde guardia zibila hil zuen, eta, ondoren, Hipolito Rodriguez Ramos polizia nazionalarekin izandako borroka batean, etakidea bera hila gertatu zen, eta polizia larri zaurituta geratu zen.

⁴⁹ Berasategiren izen bera erabili zuen BVEk, Hernanin, apirilaren 19an, 42 urteko Felipe Sagarna Ormazabal hil zuenean, Deia-ri egindako errebindikazioan. Orduan, apirilaren 20ko ABC egunkariak berretsi zuen: “Batallón Vasco-Español delakoak arratsaldeko lehen orduan hartu zuen bere gain atentatua. Ekintza “Berasategi komandoak” egin zuela esan zuen. Komunikatuak eransten zuten ETAren atentatu guztiek izango zutela erantzuna. Amaieran, euzkeraz galdetu zuten: ondo da?”. Luis Berasategui Mendizabal, 33 urtekoa eta alaba baten aita, ETAK hil zuen Bergaran 1979ko ekainaren 6an.

⁵⁰ Alfredo Grimaldosek ere, *La sombra de Franco en la Transición* lanean, hauxe ondorioztatu zuen: “Bi hilketak [Ana Tere Barrueta eta Mari Jose Bravo] Batallón Vasco Españolak hartu zituen bere gain”, 295. or.

Horri guztiari gehitu behar zaio ezen, Francisco Javier “politikan” sartuta ez bazegoen ere, haren arreba Jonek pentsatu zuela, bera Amnistiaren aldeko Batzordeetako kide izanda, horri lotua izan zitekeela bere anaiaren eta Mari Jose Bravoren aurkako atentatua. Izan ere, **handik egun gutxira autoaren gurpilak zulatu zizkieten**. Dei ugari egin zizkieten senideei, mehatxuka.

Egun horretan, berriro ere milaka lagun atera ziren manifestazioetan Bilbon, Iruñean, Donostian... Eta poliziak eraso egin zien. Donostian “manifestazio antifaxista” –hala deitu zioten– Donostiako Emakumeen Asanbladak, KAS Emakumeek, Auzo Elkarteen Koordinakundeak eta Loiolako Auzo Elkarteak deitu zuten, beste erakunde batzuekin batera. “Fuerza Nueva eta banda parapolizialak eta inkontrolatuak desegitea” eskatu zen. Donostiako manifestazioko bi pankartetan hau irakur zitekeen: “Arturo, Carlos, Mari Jose: Herriak ez du barkatuko” eta “Mari Jose ez zaitugu ahaztuko”, azken hau Loiolako Asanbladak egina.

Poliziak bortizki galarazi zuen Bizkaiko Emakumeen Asanbladak eta beste hainbat erakundek Bilbon deitutako manifestazioa. Bizkaiko Emakumeen Asanbladak manifestazioaren aurretik Areatza eta Plaza Zirkularra lotzen dituen zubian kateatzeko deialdia egin zuen. *El País*⁵¹ egunkariaren lerrobua hau zen: “**Poliziaren gogortasun handia** Bilbon eta Donostian, manifestazio antifaxistak erreprimitzean”. Eta testuan hau irakur zitekeen: “Polizia Nazionalak, kasu batzuetan, **gogortasun handiz** ekin zien, eta batzuen iritziz, **neurritz kanpokoia** izan zen”. Maria Perez Martinez gaztea (20 urte), FOP polizia indarrek botatako ke-pote batek jo zuen buruan, eta koman geratu zen, hilaren 10ean. Hurrengo egunetan komatik atera zen. Donostiako manifestazioan 14 lagun atxilotu zituzten.

Maiatzaren 12a

Manifestazioa Gasteizen, Andre Maria Zuriaren plazatik.

Beste manifestazio bat erreprimitua Nafarroako hiriburuan. Bi pertsona atxilotu zituzten.

⁵¹ El País 1980/05/13.

Loiolan gertatutakoari buruzko 28 orrialdeko herri-argitalpen bat egin zen, auzoan ikerketa-batzorde bat osatu ondoren: “Lan honek, bere apaltasunetik, M^a Jose Bravo del Valle, adiskide, lankide eta auzokideari omenaldi txiki bat egiteko balio dezala, eta auzoak ahaztuko ez duela emandako hitza agerrarazteko ere bai”.

Maiatzaren 13a.

Arturoren (Pajuelo)⁵² eta Karlosen (Saldise) izenek, talde parapolizialek erailak biak, pankarta partekatzen zuten Mari Jose Bravorekin, egindako manifestazioetan. *Diario Vasco*-k zioenez, “polizia-iturrien arabera, ikerketek aurrera jarraitzen dute, eta **errudunaren edo errudunen bilaketan zailtasunak aurkitzen ari da**, eta errepikatzen dute **inplikazio politikorik gabeko krimena dela**”.

Egunkari horrek ziurtatzen zuenez, “Oraindik ez dago neskaren heriotzaren eta bortxaketa-sintomen erruduntasuna ezartzeko zantzu argirik (...) Batallón Vasco Español delakoak ekintza ustez bere gain hartu bazuen ere, ezin izan da egiaztatu baieztapen horren egiazkotasuna”, eta, azkenik, hauxe dio: “Egin ez da izaten horrelako erreibindikazioak egiteko ohiko kanala”. [Eranskinean gai honi buruz gehiago hitz egiten dugu].

Bestalde, hilaren 13an bertan, Francisco Javier Ruedak “pixka bat hobera egin du, baina oraindik zainketa intentsiboetan dago. Haren konorte-egoera zertxobait hobetu da, baina oraindik ez dago guztiz kontziente, eta oroimena ez du berreskuratu”, idatzi zuen *El Diario Vasco*-k. *Noticias de Gipuzkoa*-k, handik 40 urtera, baieztatu zuen Javier Rueda ez zela inoiz osatu buruan jasandako lesio larrietatik, familiak esan zuenez; erasotik zortzi urtera hil zen, “eraso hark eragindako sekuelen ondorioz”⁵³.

⁵² ABC-k 1980ko maiatzaren 7an lerroburu hau eman zuen: “Batallón Vasco-Español taldeak bere gain hartu du Arturo Pajueloren hilketa”. Erasoa Maiatzaren 1ean CCOO eta UGTk Madrilen deitutako manifestazioaren amaieran gertatu zen. Joaquín Martínez zauritua izan zen, baina ez zen hil. Mugimendu Komunistaren ingurukoak ziren biak, eta Pajuelo Orcasitas-eko Auzo Elkartekoa zen. Erasoa bere gain hartu zuenean, BVEk adierazi zuenez, “Atocha auziaren epaiketan Falangeko gure kideek abokatu gorrien eskutik jasan dituzten etengabeko erasoen lehen erantzuna izan da”.

⁵³ Noticias de Gipuzkoa 2021/06/03 eta El Diario Vasco 2021/06/05.

Maiatzaren 14a

El Diario Vasco-n honako hau adierazi zuen: “Atzo goizean, polizia-txostena bidali zitzaion kasuaren epaile instruktoreari. Gertaeraren balizko kausa edo motibazioei dagokienez, **inplikazio politikoak baztertz**en jarraitzen dute, eta **maniakoren batek edo zororen batek egindako krimenaren** teoriari eusten diote”.

Bi familia horietan gauzak ez ziren berdinak izango handik aurrera. Maria Jose Bravoren amak, M^a Pilar Del Valle Alvarezek, bi infartu izan zituen, eta aita, Alfonso Bravo, ez zen berriro lehengo bera izan inoiz. Pilarrek erre egin zituen alabaren argazkiak eta bestelako paper batzuk, min handia ematen ziotelako.

Maiatzaren 22a

Beste bortxaketa bat. Donostiako Emakumeen Asanbladaren akta batean honako hau irakur daiteke: "Beste behin ere, bortxaketa baten berri eman zen: maiatzaren 1ean gertatu zen, Intxaurren auzoan; erasotzailea R12 auto batean zihoala aipatu zen"⁵⁴. Hori da dakigun guztia.

Uztailaren 14a.

Errenteriako Udaltzatzen osoko bilkurara bertaratutako zinegotziek aho batez onartu zituzten KAS Emakumeak taldeak egindako proposamenak “Udalak erantzuna emateko” gertatzen ari ziren bortxaketen aurka:

1. Emakumeek beren gorputza erabiltzeko duten eskubidea defendatzea.
2. Bortxaketa horiek eta beste edozein eratako bortxaketak salatzea.
3. Ikerketa-batzordeak indartzea.
4. Autodefentsa taldeei babes ematea.
5. Polizia-indarrek Euskaditik alde egiteko eskatzea.
6. Gobernadoreari erantzukizunak eskatzea.

⁵⁴ Díez, Garmendia eta Gorospe. Op. cit., 71 or.

Uztailaren 18a. Madalenetan manifestazioa egin zen Errenterian: “Matxis-morik eta erasorik gabeko jai herrikoiaren alde”, “Jaietan berdintasunez gozatzeko eskubidearen alde,”...

Abuztuaren 8a. Donostiako Udalbatzak egindako osoko bilkuraren aktan jasota dago aurkeztu eta partzialki onartu zela “emakumeen aurkako gertaera oso larriak gaitzesteko mozioa; KAS Emakumeak taldeak aurkeztutako mozioan aipatzen da Izaskun Arrazolak Guardia Zibilaren Kuartelean bizi izandakoaren kasua, edo M^a Jose Bravo del Valleren hilketak, eta proposamenerako puntu hauek onartzen dira”.

Lehenengo hiru puntuak onartu ziren, aldeko 20 botorekin, kontrako 3 botorekin eta abstentzio batekin:

1. Emakumeek beren gorputza erabiltzeko duten eskubidea defendatzea.
2. Bortxaketa horiek eta beste edozein eratako bortxaketak salatzea.
3. Ikerketa-batzordeak indartzea.

Seigarren puntua ere onartu zen (“Kontuak eskatzea gobernadoreari”), aldeko 11 boto, aurkako 3 eta 10 abstentziorekin, eta Euskadiko Alderdi Sozialistak (PSE) proposatuta hau gehitu zen, aldeko 14 boto, aurkako 9 eta abstentzio lekin:

- “*Maria Jose Bravoren hilketaren inguruan egindako ikerketen egoerari buruzko **informazio publikoa berehala emateko eskatzea** gobernadore zibilari”.*

Honi kiratsa dario

Udal talde sozialistak planteatutako puntuari dagokionez, aktan jasota geratu zen PSE-PSOeko zinegotzi eta ondoren Donostiako alkate izango zen Odon Elorzak publikoki esandakoa, idazkariak jaso zuen bezala:

“Gobernadore zibilari dagokionez, lehen esan den bezala, gaur egun uste baitu Maria Jose Bravo hilda agertu zen **egunetik hiru hilabete** betetzen direla Zorroagako lurretan, eta, orduan esan nahi zuten bezala, eta orain errepikatzen dute, ez dutela **ezagutza ofizialik**, argi uler dadila, **ezagutza ofizialik**, Gobernuako Agintaritzaren edo Polizia Komisariaren aldetik, eta **horixe da, hain zuzen ere, haien eginkizuna, eta ez dirudi batere ongi egiten dutenik, alegia, jakitea zein izan ziren egileak**. Izan ere, ikerketa zein egoeratan dagoen ikusita, datuak fidagarriak edo ez hain fidagarriak izan daitezke, baina badirudi **estali nahi izan dela** egileen nortasuna, ikerketak nondik nora doazen, eta haiek, eta haren ustez guztiek, interes handia dute Donostiako bortxaketa-kasu honetan, **hain iluna baita**, gobernadore zibilak eta, behingoagatik ere, Poliziaren Komisariak, **horretarako egon behar baitute, lehenbailehen eman dezaten txosten bat argitara**, informazio publikoa emanez, Maria Jose Bravoren hilketaren inguruan.

“Esaten ahal zitzaien, egiaz, itxita ez dagoen Sumarioa ireki dela, eta, beraz, Sumarioaren sekretua dela, baina hizlaria beldur da, kasu zehatz hori, **eta beste hainbeste kasu ere**, ez ote diren argitu gabe geratuko, eta, asko deitoratuko lukete sozialistek eta Korporazio osoak, **datorren urtean oraindik ere egileen eta haiekin zer gertatu den zalantzan eta ez ezagutzan jarraitzea**, eta beraz, ez du uste sobera egongo zenik exijitzea eta aztertzea ea zer neurri hartu behar diren gobernadore zibilarekin, **hau bezalako kasuak egiaz argitu daitezten, eta bestela, gobernadore zibilak onartu beharko luke ez dela gai inteligentzia aldetik, eta ez bitartekoen aldetik, ikerketa horiek aurrera eramateko, izan**

ere, Poliziak azkar asko egin zuena zera izan zen, hilketa hau gertatu eta berehala, era guztietako motibazio politikoak errotik ukatzea, eta sexu-mendekua zela esatea, eta gazte taldeen arteko kontuak zirela, baina, egiaz, gaiari buruz ez dugu gehiago ezer jakin, eta honezkero sumatzen da honi kiratsa dariola, eta horregatik exijitu nahi diote gobernadoreari, indar guztiz, gertaerak argitu ditzala behingoz”⁵⁵.

Urriaren 20a. PSOEk *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkarian salatu zuen “erabateko eraginkortasunik eza, edo agian baita **inhibizioa ere, eskuin muturreko terrorismoa argitzeko eta pertsegitzeko garaian**. Gobernuak Euskadin jarduten duten Estatuko Segurtasun Kidegoen barruan ikerketa sakon eta taxuzko bati ekin behar dio, gehiago atzeratu gabe”⁵⁶.

Norbaitek “gelditzeko” agindua eman zuen

Egiaz, dirudienez, **norbaitek “gelditzeko” agindua eman zuen**. Ez zen beste erasorik izan *modus operandi* berarekin, gogora dezagun beste behin ere: emakume gazteen bahiketa eta haien kontrako sexu-eraso jarraituak, errebindikazioa, galdeketa, armak erabiliz, euskal emakume gehiago bortxatzeko mehatxuak, babestuta sentitzen denaren zigorgabetasuna, “poliziaren ikerketa urria eta eskasa” (DVAT eta Auzitegi Nazionala) eta atxiloketa bakar bat ere ez, ez eta inongo azalpenik eman ere, urte haietako instituzioetatik... Izan ere, adierazgarria da, agintari eskudun bakar batek ere ez zuen argitu noraino iritsi ziren egindako ikerketak, ez eta zenbait froga nola desagertu ziren ere... Familiei ez zieten deus esan.

⁵⁵ Udalaren 1980ko abuztuaren 8ko 5. akta. Donostiako Udala. Odon Elorza PSE-EEko bozeramalearen hitzaldia, 240-241. or.

⁵⁶ *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 1980/10/20. Hemen jasota: Castells 1982, 135 or.

Gizarte matxista eta patriarkal honetan, emakumeen eta trans pertsonen aurkako bortxaketek eta erasoek aurrera jarraitu zuten, eta gaur ere aurrera jarraitzen dute, baina ziklo hura, ezaugarri horiekin, 1979ko azaroan hasi eta 1980ko maiatzean amaitzen dena, hor amaitu zen. Neurri batean behintzat, ondorioak oraindik ere hor daude-eta.

Badakigu 1979ko azarotik 1980ko maiatzera bitartean ekintza eta mobilizazio gehiago izan zirela, taula honetan ageri direnak baino, baina lan honetan deskribatu diren ekintza eta mobilizazioetan honako hau ikus daiteke:

Bederatzi bortxaketa bahiketarekin

Protesta-manifestazioak	22
Poliziaren eta guardia zibilen kargak manifestazioetan	9
Mobilizazioetan atxilotutako pertsonak	18
Manifestazioetan larri zaurituak	2
Bortxaketen egile gisa atxilotutako pertsonak	0

Iturria: Argituz

Gertaeran ondorengoak

1988

Martxoaren 5ean Francisco Javier Rueda Alonso, Maria Jose Bravoren laguna, hil zen Donostiako Erresidentzian. Heriotza-agirian jaso zen bihotz-arnas gelditzea eta garuneko toxoplasmosia izan zirela eragileak. 24 urte zituen.

Loiolako Auzo Elkarreak beste tumulu bat jarri zuen Francisco Javier Ruedaren omenez, bere garaian Maria Jose Bravo del Valleren omenez jarritakoaren ondoan.

Jorge Napalek eta Gorka Estradak hau idatzi zuten *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian:

“Eloisak [Francisco Ruedaren ama], beltzez jantzita beti, ez zuen egun bakar batean ere hutsik egiten Polloeko hilerrian. 81 urte bete ondoren utzi zion joateari. Sufritzen eman zuen bizitza osoa, hildako semearen oroitzapena gogoan atxikia. Hilketa batzuek guztion berehalako gaitzespenak eragiten dituzte, eta beste krimen batzuk, berriz, nolabait, “diferituan” eragiten dira, eta horrek, nonbait, larritasuna arintzen die, denbora pasata inork gogoratzen ez dituen gertaera batzuei. (...) Eloisa, “la yaya”, beltzez jantzita gogoratzen dute beti, negarrez, seme txikiaren argazkiari atxikia. (...) Familiak zauriak orbaindu nahi ditu, baina egia eta justizia eskatzen du, “argitara atera zen bakarra, krimenen egile gisa, Batallón Vasco Españolen errebindikazioa izan zelako (...) Bada garaia, –gaineratu du Javierren ilobak– biktima horiei gainerakoei bezalako aintzatespena egiteko; Estatu-terrorismoa da”⁵⁷.

⁵⁷ NAPAL, Jorge eta ESTRADA, Gorka. “Javiren hilketak oraindik ere mina eragiten du”. *Noticias de Gipuzkoa* 2021/06/12.

2000

Apirilaren 27a. Barne Ministerioko Herritarren Arretarako eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendariordetza Nagusiaren ebazpen batek **Maria Jose Bravo del Valleri biktimaren izaera ukatu zion**, haren amak, Maria Pilar del Valle Alvarez andreak, familiaren izenean, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko Legean (32/99) aitortua izateko egindako eskaeraren ondoren. Ukatu egin zitzaion, haren hilketa motibazio terrorista baten ondorioa ez zela izan iritzita, Gipuzkoako Gobernuaren Subdelegazioak Maria Pilarri jakinarazi zionez. Haren idazki laburrean, deskribatzen dute gorpua aurkitu zela “sexu-abusuak jasan izanaren eta haren heriotza objektu sendoren batekin buruan hartutako kolpe handien ondorioz gertatu izanaren seinale nabarmenekin”. Hortik ondorioztatzen dute ezen “Goian aipatutako ezaugarri eta inguruabarrak ikusita, esan behar da gertaera tamalgarria ez zela eragin motibazio terrorista batekin, delinkuentzia arruntaren motibazioekin baizik”. Ez dago besterik. Gobernuaren ordezkariordearen sinadura baino ez. Barne Ministerioa. Madril.

2002

Maiatzaren 28a. Donostiako Udalbatzak erabaki zuen Donostiako Urrezko Domina ematea Maria Jose Bravo del Valleri eta Francisco Javier Rueda Alonsori, **terrorismoaren eta indarkeriaren beste biktima batzuen artean. 2007ko uztailaren 20an**, domina eman zioten Donostiako Kursaaletan egindako ekitaldi batean, eta, horrenbestez, aitortu zuten **terrorismoaren biktimak zirela eta egilea Batallón Vasco Español zela.**

Urriaren 29a. Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzien Zortzigarren Atalak ez zuen onartu Eloisa Alonsok, Francisco Javier Ruedaren amak, jarritako errekurtsioa; izan ere, haren ustez, “ez dago egiaztatuta talde edo banda armatu batek egindako ekintzak zirela, bakea eta herritarren segurtasuna modu larrian asaldatzeko asmoz”.

Ekainaren 24a. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren barruko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak prestatutako “Talde inkontrolatuek, eskuin-muturrekoek eta GALEk eragindako Terrorismoaren Biktimei buruzko Txostena” plazaratu zen. Mari Jose Bravo eta Javier Ruedaren aurkako atentatua jaso zen txostenean. Bertan, 74 ekintza terrorista aztertzen dira, talde kriminal desberdinek eragindakoak, atentatuen errebindikazioan izen desberdinak erabili zituztela (Batallón Vasco Español, Triple A, Grupos Anti ETA, Antiterrorismo ETA, etab.), eta beste hainbat ere bai, “talde inkontrolatuek egin ondoren errebindikaziorik izan ez zutenak”⁵⁸.

Ekainaren 24a. Egun berean, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren “Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena” aurkeztu zen. Maria Jose Bravo del Valle eta Francisco Javier Rueda ageri dira txostenean biktima gisa, eta 1979 eta 1980 artean bahitutako eta bortxatutako emakume gazteen kasuak jasotzen dira⁵⁹:

“... Beharbada, kasu horiek lehendik daudenen zati bat baino ez dira, horrelako gertakarietan ohikoa baita gertatutako guztiak ez erregistratzea. (...) Gainera, sexu-indarkeriaren salaketek inplikazio pertsonalak dituzte hurbileko familian eta gizartean, gehienetan estigma soziala eragiten baitute. (...) Ohikoa da eraso horiek jasan dituzten emakumeei ez sinestea, edo haien erresistentzia frogatu behar izatea. Horien guztien ondorioz, gertaerak **ikerketarik gabe** geratzen dira askotan, eta biktimak **aintzatespenik gabe**”.

⁵⁸ Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (DAVT, 2008). “Talde inkontrolatuek, eskuin-muturrekoek eta GALEk eragindako Terrorismoaren Biktimei buruzko Txostena”. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila. Lehen ondorioa, 93. or.

⁵⁹ LANDA GOROSTIZA, Jon Mirena (2008, hiru hizkuntzatan argitaratu zen 2009ko martxoan). “Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena”. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, 482-484. eta 553. or.

Martxoaren 21a. *El País* egunkariak, erreportaje batean, azaldu zuen Alberto Bravok, Mari Josereren anaiak, gogoratzen zuela **arrebaren arropa** berreskuratu ere ezin izan zutela egin, poliziak ikerketa egiteko eraman ondoren: “Gobernadoreak [Pedro de Aristegui] **desagertu zela** esan zigun”. Eta gogora ekarri zuen: **inor ez zen haiekin harremanetan jarri, ez zen ikerketarik izan, ez epaiketarik, ez kalte-ordainik**. Era horretan –jarraitzen du *El País*-ek–, “familia txikituta geratu zen. Arreba txikia zen, eta gurasoak harentzat bakarrik bizi ziren. Aita ez zen pertsona bera izan harrez geroztik. Laster hil zen. Senargaia ere aspaldi hil zen. Ez zen inoiz lesio larri haietatik osatu”.

Luis R. Aizpeolea kazetariak, “Beste biktimak” izeneko erreportajea, gertaera horiei buruz, honako hauek ekarri zituen gogora: “Jakin ahal izan zen **talde bat** bi gazteei aurrez aurre atera zitzaizela eta beisbol-bate batekin jo zuela Rueda, konorterik gabe utzi arte. Maria Jose **bahitu eta hil egin zuten, kolpeka hura ere, bortxatu ondoren. Hilketa Batallón Vasco Español taldeak hartu zuen bere gain. Kasu honetan ere ez zen izan, ez polizia-ikerketarik, ez eta jarduketa judizialik ere**, Eusko Jaurlaritzaren txostenaren arabera. Bravo familiak hala berretsi zuen”.

2013

Apirilaren 8a. Barne Ministerioak ezetsi egin zuen Eloisa Alonso Ruizek, Francisco Javier Ruedaren amak, semea terrorismoaren biktimatzat hartzeko egingdako eskaera, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiko Sonia Ramos Piñeiro zuzendari nagusiak sinatutako idazki batean.

2014

Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Taldeak (COVITE) Maria Jose Bravo sartu du “Izuaren Mapa” delakoan –mapa hori 2010ko urtarrilean jarri zen martxan, **Batallón Vasco Español (BVE) taldeak hildakotzat** jota.

Otsaila. Errenteriako Udalak argitara eman zuen Argituz taldearen txostena *Memoria partekatu baterantz. Errenterian 1956tik 2012ra izandako giza eskubideen urraketek eta indarkeriazko gertaerei buruzko txostena*. Txostenean mugarriztat jartzen dituzte 1979tik 1980ra bitartean gertatutako emakume gazteen urraketak, eta, batez ere, herrian gertatutako kasuak eta testigantzak aztertzen dira ⁶⁰. **Udal-talde politiko guztiek babestu zuten txostena.**

Uztaila. Eusko Jaurlaritza “Memoriaren Udal Erretratuak” euskal udalei ematen hasi zen. Donostiari dagokionez, Maria Jose Bravo del Valle eta Francisco Rueda Alonsok jasandako atentatua jaso zen, honako atal honetan: “ATE, BVE, GAE eta GALEk bizitzeko eskubideari eragindako urraketak”.

2018

Martxoa. Bourgogneko Unibertsitateko Historia Garaikideko irakasle eta Frantziako Unibertsitate Institutuko kide junior Sophie Babyk gaztelaniaz argitaratu zuen *El mito de la transición política. Violencia y política en España (1975-1982)*. 735 orrialdeko lan horretan, “aktibismo ultra” delakoak hainbat pertsona hil zituela aipatu ondoren, honako hau jaso zuen: “Ia aldi berean, **BVEk Donostiako neska gazte baten bortxaketa eta hilketa erreibindikatu zituen**”⁶¹, Mari Jose Bravo del Valleren kasua aipatuz. Eta jarraitzen zuen: “Eskuin muturrak eragindako indarkeriazko ekintza hilgarrien segida aurrekaririk gabe hau ulertzeko, kontuan hartu behar dugu **tentsio-estrategia baten parte dela**, 1980an herrialdea aztoratu zuen espiral ezegonkortzaileari bultzada emateko gogotik egina”.

⁶⁰ Argituz, giza eskubideen elkarte (2015). Memoria partekatu baterantz. Errenterian 1956tik 2012ra izandako giza eskubideen urraketek eta indarkeriazko gertaerei buruzko txostena. Errenteriako Udala, 80-81. or.

⁶¹ BABY, Sophie (2018). El mito de la transición política. Violencia y política en España (1975-1982). Madril: Akal, 304. or. Jatorrizkoa, frantsesez, 2012an argitaratu zen.

Otsailaren 8a. *La Sexta Columna* telesailak Maria Jose Bravoren kasua kontatu zuen, era honetan: “Bahitu, bortxatu eta beisbol-bate batekin hila: **Batallón Vasco Español taldearen krimen basatia**”. Programan honako hau ere aipatzen da: “Maria Joserren kasua **ez da argitu, ez zen ikertu ere egin**, eta berdin gertatu zen talde ultraeskuindarrek Euskadi osoan egin zituzten hilketa eta eraso gehienekin”.

2021

Ekainaren 4a. *Deia* egunkariak Mari Jose Bravori buruzko erreportaje bat hitz hauekin amaitu zuen: “Kasua ez zen ikertu, inor ez zen harremanetan jarri familiarekin, eta familiak **ez du jaso ez instituzioen barkamen eskaerarik**, ez inongo aintzatespenik ere”.

Ekainaren 5a. Donostiako Udalak plaka bat jarri zuen Loiola auzoko Latsari plazan, Marijose Bravo bizi zen etxearen parean, haren hilketaren oroigarri. Mari Joserren bi anaiek eta iloba Zuriñe Bravok eskertzen dute “keinu hau”⁶², baina ilobak urte haietan egin ez zenarekin kontrajartzen du ekitaldi hau: “Gertatu zenean, [erasoa] ez zen ezer egin, ez doluminik ez ordezkari politiko baten hitzik ere. **Inor ez zen joan familiari ezer esatera**. Erabat babesgabe utzi gintuzten” (...) Kasua ez ikertzeaz gain, froga guztiak desagertu egin ziren (...) eta inor ez zen familiarekin harremanetan jarri; instituzio bakar batek ere ez dio barkamenik eskatu familiari”⁶³. *El Diario Vasco* egunkariak Zuriñe Bravoren adierazpenak lerroburura eraman zituen: “**BVEk beisbol-bate batekin kolpeka hil zuen**”⁶⁴.

Donostiako Udalak Loiolan jarritako plaka. Donostiako Udala.

⁶² Noticias de Gipuzkoa 2021/06/03 eta El Diario Vasco 2021/06/05.

⁶³ Ibidem.

⁶⁴ El Diario Vasco 2021/06/04.



Martxoaren 10a. Arovitek bere Online Artxiboan Maria Jose Bravori eskainitako fitxa sartu zuen, Donostiako Udalak Loiola auzoan jarritako plakarekin: “Maria Jose Bravo del Valle, ikaslea, **BVEk hila** Donostian 1980an”.

Maiatzaren 8a. Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Taldeko lehendakari (Covite) Consuelo Ordoñezek, egun horretan, Mari Jose Bravoren gorpua agertu zen datan, Twitterren hauxe idatzi zuen: “**Inoiz ez zen ikertu nahi izan**”.

2023

Maiatzak 4. Xabier Susperregiren “Marijose Bravo eta Javi Rueda”⁶⁵ liburua aurkeztu zen Loiola auzoko (Donostia) Kultur Etxean, areto bete eta oroitzapen biziekin.

⁶⁵ SUSPERREGI, Xabier (2023). Marijose Bravo eta Javi Rueda. Oiartzun, Nazio Handien Liburutegia.

Jakina motibazio politikoa badagoela!

Ez ikertzea (“ez dago jasota ikerketa-jarduerarik egin denik”, Perez 2021: 655); zigorgabetasuna ahalbidetzea (izatez, **defentsa-gabezia**) edo frogak egoitza ofizialetik desagertzea ahalbidetzea... delituak dira eta Giza Eskubideen aurka doaz. Ikerketa “berehalakoa, eraginkorra, exhaustiboa, independentea eta inpartziala” nazioarteko tresna juridikoetan jasotzen den eskubidea da. Horixe jasotzen du Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak edo Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (“**ikerketak bortxaketen erantzuleak identifikatzeko aukera eman behar du**”). Eta gaineratzen da: giza eskubideen urraketei buruzko alegazio sinesgarriari buruzko ikerketa eraginkorrik ez egiteak, **biktimen oinazea berritzeaz gain**, biktimaren edo haren familiaren errekurtsoa jartzeko eskubidea urra dezake.

Gertaera horietatik 44 urte igaro ondoren, Estatuak ez du bete ikerketa eraginkorrerako eta egia argitzeko betebeharra. Pertsona guztiok dugu egia jakiteko eskubidea, Giza Eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera.

Talde parapolizialen, *inkontrolatuen* eta eskuin-muturrekoen biktimen beste kasu batzuetan bezala, gehienei ez baitzaie aitortu terrorismoaren biktima izatea, hemen aztertu ditugun kasuetan ere horren aitopenik ez da izan. Gutxienez bi familiak eskatu zuten –Maria Jose Bravoren eta Francisco Javier Ruedaren familiek–, eta biei ukatu egin zitzaizen.

Barne Ministerioak eta Auzitegi Nazionalak **ukatzen dute bederatzi bortxaketen eta erasoen motibazio politikoa eta terrorista**. Lan honen bidez, erakutsi nahi izan dugu **motibazio hori badagoela**, hemen deskribatu ditugun ia kasu guztietan: erabilitako *modus operandi*-agatik, bata bestearen atzetik egindako bortxaketen kopuruagatik, tartean direla armak, miaketak, galdeketak,

errebindikazioa... Autoak erabili eta matrikulak ezkutatu ere ez egitea, zaindutako lekuetara (Lezoko kaira) sartzea, aurpegia agerian dutela, neska gazteak bortxatu ondoren berriro beren herrira eramatea, edo autoa kuartelaren ondoan aparkatuta uztea, gertaera horiek izan zirenean inguruan zegoen era guztietako indarkeria-giroagatik, emakume gazteak (haietako bost adingabeak) erabiltzeagatik **“gerrako sari”** gisa, haien bikotekideen, familien eta adiskideen aurrean, gertaera-katea izateagatik (ez dira kasu isolatuak, errepikatzen dira, **diskurtso politiko bat bera** erabiliz, eta errebindikatu egiten dute), eta orobat, urte haietan estamentu ofizialei zerien zigorgabetasunagatik ere.

Irekitako eginbideetako bakar bat ere ez zen publikoki ezagutu, ezta familiek ere. Inork ez zuen haiengana jo informazioa emateko. Berrikus dezagun Eloisa Alonso Ruizi 2013ko apirilaren 8ko kalte-ordainaren eskaera ezesteko eman zioten erantzuna. Barne Ministerioak (R/2012/1373 espedientea), “material grafikoa eta kazetaritzakoa ugari” zeukatela baieztatu ondoren (hedabideetan agertzen denaz bestelakoa?), honako hauetan oinarritu zuen ezetza:

- Barne Ministerioaren 2000ko abenduaren 12ko ebazpena, Maria Pilar del Vallek eskatutako kalte-ordaina ezesten duena, Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordeztzak 2000ko apirilaren 27an emandako txostenean oinarrituta. Txosten horren arabera, **gertaera ez da motibazio terrorista baten ondorio, delinkuentzia arruntaren ondorio baizik**, eta irizpen hori Estatuko Segurtasun Idazkaritzak sinatzen du.
- 2002ko urriaren 29ko epaia, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salako Zortzigarren Sekzioak emana. Epaia horrek ezetsi egin zuen Maria Pilar del Vallek aurkeztutako errekurtoa, haren ustez **ez dagoelako egiaztatuta aztertutako gertakariak talde edo banda armatu batek egin zituenik**, herritarren bakea eta segurtasuna modu larrian aldatzeko asmoz.

Zuzenbideko oinarrietan, 3. artikuluan honela definitzen dute ekintza terrorista: “Ordena konstituzionala iraultzea edo bake publikoa larriki asaldatzea helburu duten erakunde edo talde kriminaletako pertsonak egiten dutena”. Ez zen bake publikoaren eta herritarren segurtasunaren asaldatze

larririk izan? Ez zen antolakuntzarik (errebindikazioa, koordinazioa, diskurtso politikoa...) eta estamentu batzuen inpunitaterik?

Ondorioa: aipatutako estamentuek ez dute “izaera terroristako ekintzatat” hartzen hemen aipatutako emakumeek jasan zuten eskubide-urraketa.

Eta ez dute azalpen gehiago ematen. Ez dute ahaleginik egiten baieztapen horiek frogatzeko. Eta, hala ere, hainbeste urte igaro ondoren, argitu edo egiaztatu ez dutena da, hain zuzen ere, emakume gazteen aurkako eraso horiek ‘delinkuentzia arrunteko’ ekintzak izatea. Non daude egintza haiek “delinkuentzia arrunta” zirela frogatzen duten emaitzak, egiaztapenak, frogak, errudunak, salaketa judizialak...? Zergatik ez dira argitara atera? Non geratu ziren Poliziaren Komisariako arduradunek egindako adierazpenak, Bravoren eta Ruedaren kasuan errudunak identifikatzeko aztarna bat zegoela eta gertakariak berehala argitu nahi zituztela esanez? Zer gertakari, hemen jaso direnetatik, argitu dituzte berehala?

Komunikabide batzuek, emakumeen taldeek, elkarteek, alderdiek, manifestazioetako esloganek... funtzionario publikoek ekintza haietan izandako ustezko inplikazioa eta erakutsitako immunitatea salatuz egindako akusazio larrien aurrean, ez al zuten interesik izan agintariek, egindako ahaleginen berri -baita haien tesien ebidentzia eta frogen berri ere- jendaurrean emateko, baldin eta egin bazituzten, eta, era horretan, kritikak eta akusazioak isilarazteko? Ez al zen aurrerapenik izan bortxatu eta bahitutako emakumeen bederatzi kasuetatik bakar batean ere? Hala al da?

Familiek eurek ere ez zuten jaso arreta egoki eta duinik. Horren salbuespena izan daitezke Errenteriako eta Loiolako familien ekimenez egindako bi bilera, baina haietan ere, jarraitasunik ez zen izan, ez zuten argibide askorik jaso, eta bai, ordea, ukatu egin zitzaizen, familiek eskatu zutenean, emakume haiek terrorismoaren biktimatzat hartzea.

Biktimek jarraitzen dute egia eta justizia eskatzen, eta ez dute berriro biktima bihurtzerik nahi. Odon Elorza zinegotzi sozialistak 1980an Donostiako

ULERTZEA, BIZITZAREN BILA

Udalbatzan, Mari Jose Bravo hil eta hiru hilabetera deitu zuten osoko bilkuran, inolako aurrerapenik ez zela ikusita, ozen esan zuenez: “**Honi kiratsa dario**”⁶⁶. Eta kiratsa dario, oraindik ere, 44 urte geroago.

⁶⁶ Udalaren 1980ko abuztuaren 8ko 5. akta. Donostiako Udala. Odon Elorza PSE-EEko bozeramaiearen hitzaldia, 240-241. or.

Eranskina

“IZAERA TERRORISTAKO” EGILE AGERIKOAK ETA EZKUTUAK

Urte haietako atentatu parapolizialei hedabideetan eman zitzaizen tratamendua aztertu du Argituzek. **Hor sartu genituen bahitu eta bortxatutako bederatzi neska gazteen kasuak**, eta hainbat aldaera aurkitu ditugu. Urte haietako atentatu parapolizialen multzotik, **batzuk erreibindikatu ziren, baina beste batzuk ez**. Errebindikazio gehienak (ez beti) telefonoz egin ziren, komunikabide desberdinetara egindako deien bitartez, besteak beste: *El Diario Vasco* (Aldana), *Deia* (Felipe Sagarna), *Radio Nacional de Bilbao*, *Egin* (Mari Jose Bravo), *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (David Salvador), *La Voz de España* (Errenteriako bortxaketak), eta abar... Batzuetan, komunikabide bati baino gehiagori deitu zitzaizen (atentatua bere gain hartzeko, lehenik, eta errebindikazioa irakurtzeko, handik egun batzuetara).

Beste kasu batzuetan, **bi edo hiru “marka”** desberdinek erreibindikatzen dute atentatu berbera. Bi talde edo akronimo desberdinek –Antiterrorismo ETA (ATE)⁶⁷ eta Triple A– hartu zuten beren gain Jose Manuel Pagoaga Gallastegiri zauri larriak eragin zizkion atentatua (1979); Justo Eleizaranen hilketak (1979)

⁶⁷ Sophie Baby irakurritz, *El mito de la transición pacífica*, lanean, 2018an: ATE izango litzateke “sigla asmatuak, Guardia Zibilaren Estatu Nagusiko aginduak jasotzen zituzten taldeek erabiltzen zituztenak. Saenz de Santa Mariak ere uste du “askotan kolpeen egileak pertsona berak zirela, aldarrikatzen zituzten siglak edozein izanda ere”, 592 eta 593. or.

Acción Nacional Española (ANE) eta Grupos Armados Españoles (GAE) taldeek hartu zuten beren gain. Gauza bera gertatu zen Carlos Saldiseren hilketarekin (1980), Lezon, Anti ETA (GAE) eta BVE taldeek hartu baitzuten beren gain.

Zer bilatzen zen horrekin? Nahasmen handiagoa sortzea?

Sophie Babyk argitu zuen esanez ezen, “siglak modu harrigarrian ugaritze horrek nahasmen handia eragiten du, bortizkeria erabili dutenak identifikatzeko orduan” eta “kasu gehien-gehienetan, eskuin-muturrekoek egindako indarkeriazko ekintzak **ez dira errebindikatzen**”. Halaber, ez du ahazten “**oso gutxitan gertatu zela polizia-ikerketak egin eta horien ondoren inor atxilotzea**”⁶⁸.

Askotan, beraz, ez zen errebindikaziorik egin, edo sigla bat edo bestea erabili zen, nahierara. Esanguratsua da Ignacio Iturbidek eta Ladislao Zabalak zuzentzen zuten ultra komandoaren portaera, “Heriotzaren Triangelua” izenekoan zortzi atentatu hilgarri egin baitzituen: Hernani, Astigarraga eta Andoain. **Hasieran ez zituen bere ekintzak errebindikatu** (baserri jakin batzuen belar-metei su eman, preso senideen etxebizitzak edo establezimenduak metrailatu zituzten...), eta ez zuten inolako siglarik erabili. Ondoren, **hiru sigla erabili zituzten nahierara**: BVE, AAA edo GAE, une bakoitzean interesatzen zaien moduan. **Eta, hala ere, komando bat bera zen**. Lehen hilketa 1977an egin zuten, eta *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkariari deituta hartu zuten beren gain, Triple Aren izenean (Alianza Apostólica Anticomunista). 1979an, haien bigarren eta hirugarren hilketak BVEk (Batallón Vasco Español) eta GAEk (Grupos Antiterroristas Españoles) errebindikatu zituzten, eta berdin Carlos Saldiseren hilketa, Lezon egindakoa. 1980ko azken bost hilketak BVE siglak bakarrik erabilia errebindikatu zituzten.

Iritzi nagusia da sigla-dantza hori “ausazkoa” zela; izan ere, helburua zen gizartean izua eta nahasmendua eragitea, eta sigla-nahasketa horrek –edo bortxaketak ez errebindikatzeak– laguntzen zuen horretan. Iturbide eta Zabalaren komandoa 1981eko martxoaren 4an atxilotu zuten, Andoainen azken atentatu hilgarria egin eta hurrengo egunean⁶⁹, nahiz eta herrian haietakoren

⁶⁸ BABY, Sophie. Op. cCit., 124. or.

⁶⁹ Francisco Javier Ansa Zinkunegi 36 urteko langilea hil zuten Andoainen; ez, zegoen politikoki

bat ezaguna izan. 1979an, horri buruzko dossier bat argitaratu zen, eta Rogelio Gonzalez Medrano taldeko damutu batek hala adierazi zion poliziarri.

Erreklamatu gabeko atentatuen errealitate hori ere Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko TBLZ erakundeak egindako “Talde inkontrolatuek, eskuin-muturrekoek eta GALEk eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostena” izeneko lanaren ondorioetan jaso zen, 2008an. Txostenean jasotzen dira **“talde inkontrolatuek egin ondoren errebindikatu ez ziren beste hainbat atentatu”**⁷⁰. Guerrilleros de Cristo Rey edo Guardia de Franco taldeek ematen zituzten jipoi eta sabotaje asko ere ez ziren argitara ateratzen.

Talde parapolizialek beren atentatuak errebindikatzeko modu bakarra izan ote zuten, adibide ugari adierazten dute hori ez zela hala izan. Agurtzane Arregi Letamendiren hilketa, 1978ko uztailaren 2an, Donibane Lohizunen, Triple A taldeak hartu zuen bere gain, Egin egunkariaren Nafarroako egoitzara deituta. Hurrengo egunean, talde parapolizial horrek bere atentatua berretsi zuen beste dei baten bidez, oraingoan *La Voz de España* egunkariari deituta. *El Diario Vascon* ere osorik argitaratu zen komunikatua. Errebindikazioan, Triple A taldeak hainbat erakunde eta organismoen aurkako atentatuak egiteko mehatxua egiten zuen, hala nola auzo-elkarteak, eta *Interviú* aldizkariaren aurkako bonba bere gain hartzen zuen, “Espainiaren batasunaren, handitasunaren eta askatasunaren” izenean.

El *Diario Vasco* egunkariak 1980ko maiatzaren 13an Mari Jose Bravoren hilketaren errebindikazioa aipatu zuen, *Egin*-en jaso zena, hitz hauek erabiliz: “ustezko errebindikazio”, **telefono-deia ez delako errebindikazio-mota horien ohiko kanala** (...); izan ere, erakunde horrek egindako beste atentatu batzuetan, errebindikazioa **idatziz** jartzen zen eta lekuren batean uzten zen”. Gainera, komunikabide horren arabera, Francisco Javier Ruedari egindako mehatxuek ere “ez dute jarraitzen orain arteko jokabide-eredua”. Hala ere, aurretik eta ondoren, errebindikazio asko telefonoz egin ziren, baita *El Diario Vascon* berari deituta ere. Esaterako, 1980ko urtarrilaren 20an, GAEEK beren erantzukizuna errebindikatu

sailkatuta, komando horrek hildako beste biktima batzuk ere ez zeuden bezala.

⁷⁰ Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (DAVT). Op. cit., 94. or.

zuten Alonsotegiko Aldana tabernaren aurkako atentatuan, **El Diario Vasconi telefonoz deituta** (Linz Artxiboan eta ABCn, behinik behin, hala jaso dago), eta iragarri zuten aurrerago komunikatu bat argitaratuko zutela, eta mehatxua egin zuten berriro atentatua egiteko “Gipuzkoako **herri gatazkatsu batean**”.

Beste adibide batzuk jartzearen, 1980ko maiatzaren 6an, Batallón Vasco Español taldeak Madrilen, Maiatzaren 1ean, Mugimendu Komunistako (MC) bi jarraitzaile egin zien eraso [horietako bat hil zen], bere gain hartu zuen, *Egin* egunkariari **telefonoz deituta**. ABCk titulu hau eman zion hurrengo egunean: “BVEk Arturo Pajueloren hilketa bere gain hartu du”, *Egin* egunkariari deituz. Felipe Sagarna Ormazabalen aurka apirilaren 19an, Hernanin egindako atentatu hilgarria bere gain hartzeko ere, **BVEk telefono-dei bat erabili zuen, kasu honetan Deia egunkariari** egindakoa.

Ondorioa:

- Ez ziren atentatu eta eraso guztiak erreibindikatu,
- Ez zen modu bakarra erabili atentatu parapolizialak erreibindikatzeko.
- Ez ziren egin komunikabide bakarra erabiliz,
- Ez zitzaizkion atentatu guztiak sigla bakar bati egotzi, batzuetan bi eta hiru akronimo ere erabili ziren, egiaztatu dugun bezala.